


# Berrigara

## MAIATZAREN LEHENA

15 orduko lan-jardunaren alde

### RUCE SPRINGSTEEN

Zaragozako  
kontzerturako bidaia  
Ekainaren 5ean  
Autobusa+sarrera:  
8.500/bazkideek 8.000




### SAL TSA ETA MERENGEA

Hastapen-ikastaroak  
Eguenetan 8etatik 9:30etara  
3.000 pezeta hilean  
Maiatzaren 6tik aurrera

EMAN  
IZENA!

Egin zaitez JAM aretoko bazkide! 2.000 pezeta urte osoa!

# Jakina altzari dendak Urteko Sukaldearen Fagor Saria jaso du



URTEKO SUKALDEAREN FAGOR SARIA 1998

PROIEKTU IZENDATUA

*“ESPAZIO NEKEZARI IRTENBIDERIK EGOKIENA”*

BANATZAILEA: JAKINA

BEZEROA: Jesus Satrustegi



SUKALDEKO ALTZARIAK

## JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

**¡ADI!**  
SELECTA, LINEA eta SENDA  
sukalde modeloek  
**%25**eko beherapena  
dute maiatzaren 23ra arte!

JAKINA,  
bainugelak,  
zeramika  
eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa,  
Amillaga 10, behea. BERGARA.  
Telefona: 943 76 03 30.  
Faxa: 943 76 02 91.





# Viagra ala pozoina ONUrentzat?

Iñigo Urrutia / Kazetaria

**N**ATOk gerran sartu gaitu eta hiritarrok, amets gaiztoa balitz bezala, esnatzerakoan ahazteko jokaera erakusten dugu. Dena den, aliatuen herrialdeetako parlamentuek ez dute erabakitze aukerarik izan. Kaletarrok ez dugu inolako eskubiderik ezer esateko.

Europar baloreen izenean, Estatu Batuek agindu zuten Milosevic akatu behar zutela eta Solanak, morroiaren paperean, horrela azaldu zuen publikoki. Bitartean, ONU, laino artean zeltari, milaka kilo Viagraren zain, ea noizbait bere betebeharrak egiteko gauza den. Tamalez (ala zorionez?) ONUk pikulitxara bidea hartu du.

Erokeria honek eztabaida zorrotzak piztu ditu hainbat komunikabidetan baina, orokorrean, gure eserleketan eroso asko ikusten ditugu, militarrek bezala, milaka kilometrora, gerrak eragiten dituen hilketak. Telebistek sasiegia erakusten dute, baina guda madarikatu honen benetako irudiak eraso

bukatu ondoren ezagutuko ditugu kasu onenean.

Gogora ditzagun, bestela, Iraken kontra egindako astakeriak. Orduan Husseinek gorpuzten zuen zibilizazioaren deaburik arriskutsuena. Baina, milaka lagun irakiar erahil ondoren, satrapak bizirik dirau.

*Iraken kontra petrolioaren*

*kontrola zegoen jokoan.*

*Orduan ere, kurdoen egoera*

*larria aipatu zen, baina*

*aitzakia besterik ez zen.*

*Oraingoan, guda etikoa,*

*albaniar-kosovarren alde.*

Yugoeslaviako kasuan ondorioak antzerakoak izan daitezke. Iraken kontra petrolioaren kontrola zegoen jokoan. Orduan ere, kurdoen egoera larria aipatu zen, baina aitzakia besterik ez zen. Oraingoan, guda etikoa, albaniar-kosovarren alde. Gizarajoak, beren etorkizuna NATOren esku badago.

Dena den, NATOren jokabidea aztertuz hainbat ondorio atera daitezke: Europa politikoaren porrota, Estatu Batuen polizi funtzioaren berrindarketa, gustora gainera; nazioarteko harremanak hankaz gora daudela eta zutabe berri batean oinarritzeko arrisku bizian gaudela, hain zuzen ere NATOrek bere esku uzten duela noiz eta noren kontra bidali armadak.

Hala eta guztiz, edozein herrik izan behar dio beldurra NATOri. Nola ukatu, adibidez, arma nuklearrak izateko eskubidea? Horra hor Pakistan eta Indiaren arteko tirabira. Milosevic bat sortuko balitz herrialde haietan, Solanak eraso "aginduko" luke? **B**

barruan



**Marisabel Hurtado**

Bolu eta Giartzu gimnasioetakoa

*"Pilotarien eta zaleen mesederako izango da prestaketa egokia asmatzea"*

8.



**Ander Muguruza**

BKEko pilotaria

*"Aurten debutatuko dut Bergara Hirian eta puntako pilotariekin aritzea pozgarria da"*

21.



**J.A. Unzurrunzaga**

Pol-Pol Argazki Taldekoa

*"Erretratuak ondo ateratzen zaizkit; nori aterako niokeen? Pinocheti kartzelan"*

29.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1936.** Apirilaren 27an Elorregiko Sakona baserriko Eusebio Osa Unamuno jaio zen. Gasteizko Irakasle Eskolako katedraduna izan zen eta EHuko Euskara Kabineteko zuzendaria ere bai. Artikulo ugari argitaratu zuen aldizkari eta egunkarietan eta baita hainbat liburu ere: "Pedagogia eta gizartea" (1972), "Elurra" (1973), e.a. 1993an hil zen.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1831.** Apirilaren 30ean Bilintx bertsolaria jaio zen Donostian.  
**1937.** Apirilaren 26an hegazkin alemanek Gernika kiskali zuten.  
**1981.** Apirilaren 26an Realak liga txapelketa irabazi zuen lehen aldiz.  
**1994.** Apirilaren 28an Elhuyar-ek "Ezagutu Gipuzkoa" euskaraz egindako lehen CD-Rom-a aurkeztu zuen.

### MUNDUAN GERTATUA

**1992.** Apirilaren 27an Serbiak eta Montenegrok Yugoslaviako Errepublikak aldarrikatu zuten.

## zozketak

### BONO LOTO

**Eguakitza 23**  
 21-23-24-27-39-44 (osag.37/itz.8)  
**Astelehena 26**  
 6-17-18-25-40-45 (osag 11/itz.3)  
**Martitzena 27**  
 18-30-36-39-44-48 (osag.14/itz.7)  
**Eguaztena 28**  
 20-21-31-36-46-47 (osag.1/itz.7)

### PRIMITIVA


**Zapatua 24**  
 8-15-16-37-38-43 (osag.41/itz.1)  
**Domeka 25 Saritzarra**  
 14-18-21-23-25-46 (osag.29/itz.2)

### ONCE

**Eguakitza 23:** 52.017 (091 seriea)  
**Astelehena 26:** 28.661  
**Martitzena 27:** 59.761  
**Eguaztena 28:** 77.752

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*



Zeru estaliak nagusituko zaizkigu astebukaeran. Domekan, gainera, euria egin dezake. Temperatura epelak izango ditugu eta merkurioak gora egingo du. Haizeak hegotik joko du, baina domeka iluntzerako iparra nagusituko da.

## Ilargiaren aldiak



Ilgora: martxoak 22



Ilbete: martxoak 30



Ilbehera: maiatzak 8



Ilberri: maiatzak 15

## Eguzkia

*Domeka, maiatzak 2*



Sortu: 07:15



Gorde: 21:13

## Temperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 22</b>	18	6	6,2
<b>Eguakitza 23</b>	16	10	0,2
<b>Zapatua 24</b>	20	5	-
<b>Domeka 25</b>	19	4	6,3
<b>Astelehena 26</b>	17	8	1,1
<b>Martitzena 27</b>	17	7	0,5
<b>Eguaztena 28</b>	13	10	3,1


## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

### Arka

Arkia. Gari-kutxa oso handia. Hankaduna eta apartamentuekin. Gari-kutxa. Troja.

*- Aundixa zanian, ankaduna, kutxian forman, ola erdittik apartamentuekiñ, ari arkia esaten jakon.*



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Mobilak eta autoak

Torontoko (Kanada) Unibertsitatean egindako ikerketa-lan bateko emaitzetatik konklusio hauxe atera dute ikerlariek: autoa gidatzen den bitartean telefono mugigarri batetik hitz egiten jarduteak %400ean handitzen duela istripu-arriskua. Beraz, telefonotik berriketan doan gidaria, odol litro bakoitzeko gramu bat alkohol duela gidatzen duena baino arriskutsuagoa da.

## Farmaziak

### Eguakitza 30:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

### Zapatua 1:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

### Domeka 2:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

### Astelehena 3:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

### Martitzena 4:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

### Eguaztena 5:

PUV. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

### Eguena 6:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

## Ogia

**Domeka 2:** Ogizun.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbultantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizprialde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuaren Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 25 85

# zorion agurrak



**Manu Mateos**  
3an urtebetetzea.  
Urte askotarako  
eta muxu handi bat!  
Etxekoak.



**Paul Azkargorta**  
Apirilaren 30ean  
3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Kristina Pavo**  
Maiatzaren 3an  
24 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrila.



**Lorea Palacios**  
Maiatzaren 3an  
urtebete.  
Urte askotarako!  
Aitaxo eta amatxo.



**Iker Lizarralde**  
Maiatzaren 5ean  
10 urte. Urte askotarako!  
Eneko eta familiakoak.



**Mikel Gallastegi**  
Maiatzaren 4an  
13 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta amama.




**Asier Kortabarria**  
Maiatzaren 4an  
7 urte. Urte askotarako!  
Anaia, Aitor eta etxekoak.



**Lorea Larrañaga**  
Maiatzaren 1ean  
7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Ainhoa Alonso**  
Maiatzaren 6an  
14 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Maite.



**Manex Larrañaga**  
Maiatzaren 3an  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Itxaso Larrañaga**  
Maiatzaren 2an  
3 urte.  
Urte askotarako!  
Bebat.




**Patxi Ugalde**  
Maiatzaren 6an  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.

**ESKER ONA**

**Mari Karmen Mendizabal Errasti**

Gasteizen hil zen 1999ko apirilaren 13an,  
39 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi  
eskerrik asko sendikoen izenean.*




**ESKER ONA**

**Julen Arzelus F. Arroiabe**


“Txarriduna”

Donostian hil zen  
1999ko apirilaren 24an,  
78 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi  
eskerrik asko sendikoen izenean.*



Datorren asteko **BERRIGARAN**,  
**APIRILAREN 30a** eta **MAIATZAREN 6a** bitarteko  
lagunen zorion agurrak bakarrik argitaratuko dira.



**Eneko Kortabarria**  
Maiatzaren 2an  
urtebete. Urte askotarako!  
Unai, gurasoak eta  
Nerearen etxekoak.



**Jon Agirre**  
1ean 2 urte.  
Urte askotarako!  
Unai, gurasoak eta  
Nerearen etxekoak.



**Nuria Perez**  
Maiatzaren 4an  
22 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



**Juan Antonio Alzas**  
1ean 33 urte. Urte askotarako!  
Botitxeli koadrilakoak.



**Olatz Ibabe**  
Maiatzaren 1ean  
4 urte. Urte askotarako!  
Mireia eta etxekoak.



**Oihana Ot**  
Maiatzaren 3an  
urtebete.  
Urte askotarako!  
Ama eta aita.

## hildakoak

### BERGARA

**Teresa Luarizaristi Iñarra**

Apirilak 23, 79 urte

**Julen Arzelus Fernandez Arroiabe**

Apirilak 24, 78 urte

**Victoria Eguren Agirrezabal**

Apirilak 25, 90 urte

**Apolonia Iturbe Maiztegi**

Apirilak 27, 81 urte

### ANTZUOLA

**Alejandro Oria Bizkalatza**

Apirilak 25, 88 urte

## jaiotakoak

### BERGARA

**Ane Agirre Egia**

Apirilak 14

**Xabier Goenaga Urkiola**

Apirilak 16

### ANTZUOLA

**Alazne Rodriguez Garitano**

Apirilak 25

## PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino).

Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino).

**Bergara-Gasteiz.** Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

**Oñati-Bergara.** Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

**Bergara-Eibar.** Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

**Bergara-Bilbo.** Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

## ANTZERKIA

► **Sobradun** taldearen "No hay huevos" gaur 22:30etan Arrasateko Amaia antzokian.

► **Teatro Grapparen** "Muac" gaur, eguakitza, 22:30etan Elorriko Arriolan.

## MUSIKA

► **Hamlet, MDH eta Fumas Iscariote** taldeak gaur, eguakitza, 22:00etan Jamen.

► **Kepa Junkera** zapatuan 22:30etan Elorriko Arriolan.

► **Mikel Urdangarin eta Iñaki Labaka** gaur, eguakitza, 22:30etan Oñatiko Gaztelekuan.

► **Kukka taldea** domekan 22:00etan Soralezuko Gaztelupe tabernan. Eguenean, 22:00etan, **Petti** kantariaren emanaldia.

## ERAKUSKETAK

► **Ricardo Azkargortaren** margo erakusketa Iruñeko Carlos III.a Kultur Etxean.

► **Luis Laskurainen** margoak Eibarko Arrate Elkartean.

## ERROMERIA

► **Irukurutzetako erromeria** datorren domekan, maiatzak 9, ospatuko da aurten.

## Gazte lokalaren aldeko asteburua

Gazte lokalaren aldeko taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu asteburu honetarako, Bergaran gazteentzako gune autogestionatu baten alde. Gazte talde honek urtebete baino gehiago daroa herrian lokal bat lortzeko lanean eta gaiari buruzko txostena eta gazte lokalaren estatutuak eginak ditu. Azken aldirian, euren proiektua herriko hainbat talderi azaltzen aritu dira eta astebukaera honetarako antolatu dituzten ekitaldien bitartez herriari azalduko dizkiote euren asmoak: zapatuan, eguerdiko 12:00etan, San Martin plazan prentsaurreko masiboa eskainiko dute.

Horrez gain, atzo, eguena, okupazioari buruzko mahaingurua izatekoa zen Kultur Etxean eta gaur beste mahainguru bat izango da "Bergarako Udalak zer egin du hamarkada honetan gazte sektorean?" gaiari buruzkoa, 19:30etan Kultur Etxean bertan. 22:15etan, berriz, euskal laborerentzako ordu eta erdiko emanaldia izango da Kartzela Zaharrean.

Zapatuan, Gazte lokalaren proiektuaren azalpenaren ondoren, poteoa, kalejira eta herri bazkaria izango dira, azken hau Bideberrin; 19:30etan, berriz, rock kontzertua San Martin plazan, Teen Dogs, Fist Fucking, Astro Zombies eta Nous taldeekin.



Morauren emanaldia domekan izango da.

kin. Domeka arratsaldean, Aitzol Mujika, Josune eta Edurne eta Morauren emanaldiak izango dira Ziripot, Arrano eta Infernukua tabernetan eta, amaitzeko, 20:00etan, Gazte lokalaren aldeko manifestazioa izango da San Martin plazatik iritenda.

## LEHIAKETAK

► **Bergara Hiria argazki lehiaketa.** Lanak maiatzaren 11ra arte jasoko dira. 943 76 30 90 (Benito).

► **Literatur lehiaketa,**

Udaleko Euskara Zerbitzuak deituta. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 16an bukatuko da. 943 77 91 66.

## DEIAK

► **Deba Garaiko DYAK bere**

**urteroko diru eskaera** egingo du astebukaeran. Helburua urteko aurrekontuari (11,4 milioi pezeta) aurre egin ahal izateko dirua jasotzea da.

► **Fatimara erromesaldia,** maiatzaren 18tik 22ra, frantziar kotarrek antolatua. 943 78 09 51.

**TOLDOS**  
**LETE** C/B

Egintza  
Konponketa  
Alokairua  
Balkoia  
Terrazak...  
Erabilera guztietarako  
olanak

Kataide poligonoa, 14 pabilioia, Musakola auzoa. **ARRASATE**. Tf. 943 79 23 83

**LONBIDE**  
**CINETAKOAK**

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
☎ 943 76 10 57

► **Mendi irteera Belagua** aldera maiatzaren 8an eta 9an. Argibideak Pol-Polen.

► **EAJ**ren ez-ohizko Uri Batzarra egunean, hilak 6, 20:00etan Batzokian.

► **Xipizarok** 3 urtetik 14 urtera bitarteko gaztetxoei zuzendutako udalekuak antolatuko ditu. Izen-ematea maiatzaren 14ra bitartean zabalik. Plaza mugatuak. 943 76 23 76.

► **Musika Eskola.** Matrikula epea ekainera bitartean izango da zabalik. 943 76 57 80.

► **San Joxeperen mendi irteera** eguaztenean, maiatzak 5. Ibilbidea: Bergara, Soralueze, Karakate, Irukutzeta eta Bergara. Irteera 8:00etan Beheko Estaziotik. 943 76 21 40.

► **Pazkuetan txozna** jartzeko interesa duten Bergarako irabaz asmorik gabeko entitate edo elkarteek maiatzaren 8ko 13:00ak arte izango dute zabalik eskaerak aurkezteko epea.

## KINTADAK

► **1965ean jaiotako enafaria** bihar, zapatua, Gasparren, 22:00etan. Deportivo tabernan 19:30etan elkartuko dira.

► **1949an jaiotako bergararren bazkaria** maiatzaren 8an Tartufon (943 76 35 51).

► **1960an jaiotako bergararren afaria** maiatzaren 8an

Txuringo jatetxean, 21:30etan. Aurretik, 21:00etan, taldeko argazkia aterako dute Osintxuko frontoian. Izen-ematea Kutxan.

► **1963an jaiotako bergararren afaria** maiatzaren 8an Txuringon, 21:30etan. Izen-ematea Ariznoa eta Kortazar tabernetan. Maiatzaren 8an 20:00etan Ariznoan elkartuko dira eta jatetxera joateko autobusa izango da.

## JAIK

► **San Prudentzio jaiak Elorregin.** Zapatuan, maiatzaren 1ean, auzo bazkaria Alkartasuna elkartearen 14:00etan, Egaña eta Peñagarikano bertsoariekin eta Mendia eta Erribera jota kantariekin. Domekan, Meza Nagusia 11:00etan eta 12:00etan pilota partiduak.

► **Labegarrietako jaiak.** Bihar, zapatua, marrazki lehia-keta elizako aterpean 11:00etan eta 11:30etan Meza Nagusia. 12:30etan, Udal Musika Bandaren kontzertua Labegarrietako elizan eta ondoren txorizoa eta salda banatuko dira. Arratsaldean, III. Plater Tiraketa, Angiozarko bidean, 16:00etan. Kukañak eta buruhandiak Kiroldegian 17:00etan eta ondoren txokolata. Iosu eta lokin trikitilariak alaitutako auzo afaria 21:30etan Zabala jatetxean. Domekan, txirrindulari lasterketa 16:00etan.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades Shakespeare enamorado**

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**La hija de un soldado nunca llora**

Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**

**Gato negro, gato blanco**

Eguakitza: 22:00.

**Mensaje en una botella**

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:30, 22:00.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:00.

**ARRASATE. Amaia**

**Nosotros dos (J.B.)**

Eguena, zine-kluba: 21:30.

**EIBAR. Unzaga**

**La novia de Chucky**

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 19:30, 22:15.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztina, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**

**Cookie's fortune**

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**

**La delgada linea roja**

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

**En compañía de hombres**

Eguena, zine-kluba: 20:15.

**OÑATI. Santana**

**Muertos de risa**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

### SHAKESPEARE ENAMORADO

**Zuzendaria:** John Madden.

**Aktoreak:** Gwyneth Paltrow, Joseph Fiennes, Geoffrey Rush. John Maddenek zuzendutako komedia erromantikoa honek Oscarretan zein Urrezko Globoetan sari ugari jaso zuen, bietan ere filmerik eta aktorea onenari zegozkienak. 1593. urtean girotuta Shakespeare idazle ospetsuaren gora-beherak azaltzen zaizkigu; idazle ingelesak ez du inspiraziorik aurkitzen, baina *Lady Viola* ezagutu bezain laister arrakasta handiko lanak idatziko ditu.



### LA HIJA DE UN SOLDADO...

**Zuzendaria:** James Ivory.

**Aktoreak:** Barbara Hershey, Kris Kristofferson, Leelee Sobieski. 1960. urtean Estatu Batuak utzi eta *James Jones* idazlea bere emaztearekin Parisera bizitzera joan zen. Intelektualengan berebizikoa lilura sortu du Frantziako hiri-buruak eta bikote protagonista 68ko maiatzeko gertakarien lekuko izango da. Euren jaioterrira itzultzean, arrotza zaien herrialdea aurkituko dute...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.


**SANTOS**  
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA  
• SUKALDEKO ALTZARIAK •  
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Jai zoriontsuak opa dizkie bere lagun eta bezeroei

**KINTOENTZAKO BAZKARIAK,  
JAUNARTZEAK,  
EZKONTZAK,  
BATAIOAK...**  
Igandeetan zabalik  
enkargatuz gero



**ZABALA**  
JATETXEA • OSTATUA

Labegarrieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

**Aspe pilota enpresak bere kirol organigrama berria aurkeztu zuen eguaztenean Donostian. Enpresako pilotarien prestaketa fisikoa eta teknikoa hobetu eta mediku zerbitzua indartu nahirik, hainbat profesional arituko dira horretan lanean. Marisabel Hurtado bergararrak Bergara inguruan biltzen diren pilotari profesionalen prestaketaren kontrola eramango du hemendik aurrera.**

**G.** Zela suertatu da Aspe pilota enpresarekin lan egiteko aukera?

**E.** Banakako kirola izanik, pilotarien prestaketa euren esku egon da orain arte; askotan, pilotariak euren kabuz entrenatu behar izan dira aholkularitza handi barik eta, beharbada, prestaketa fisikoari ez zaio behar besteko garrantzia eman. Orain, Aspe enpresak alde hori gehiago lantzeko neurriak hartu ditu eta Bergara inguruan Aspeko lau pilotari daudenez (Zezeaga, Etxaniz, Elkoro eta Berraondo), gure gimnasioan entrenatuko dira. Osatu berri den organigraman Joaquin Plaza izango da Aspeko kirol zuzendaria eta berarekin batera Carlos Arraiza eta Ivan Urkizu izango dira gure gimnasio-ko pilotarien prestaketaz arduratuko direnak.

**G.** Zein izango da zure lana?

**E.** Aipatutako pilotariak Bolu Fitness gimnasioan entrenatuko direnez, zelabait, entrenatzaileek agindutako lanaren kontrola eramango dut eta beharrezkoa gertatzen den kasuetan aholkularitza ere emango diet.

**G.** Zertan aldatuko da euren prestaketa? Zer dago hobetzeko?

MARISABEL HURTADO  
Bolu eta Giartzu gimnasioetako

*“Pilotarien eta zaleen mesederako izango da prestaketa egokia asmatzea”*



Marisabel Hurtadok Aspe pilota enpresarekin kolaboratuko du.

**E.** Egia esan, gure pilotariak ondo zaindu dira azken urteotan, enpresaren aginduetara eta emaitzak hor daude. Oraingo erronka euren errendimendua hobetzea da, maila onean kirol bizitza luzatu ahal izateko. Beraien eta publikoaren mesederako izango da prestaketa egokiarekin asmatzea. Hobetzeko dauden

***“Pilota munduan hobetzeko dauden gauzen artean, elikadura dago. Elikadura kontuetan kirolariak zorrotza izan behar du”***

gauzen artean, elikadura azpimarratuko nuke beharbada. Pilota orokorrean hartuta, badira bizpahiru kilo sobran dituzten pilotarien kasuak eta horrek euren jokoa eragin zuzena dauka, kantxan bizitasuna galtzen dute eta. Elikadura kontuetan kirolariak zorrotza izan behar du bere buruarekin, entrenamendua eta elikadura bera lotuta daudelako elkarrekin. Entrenamenduari dagokionez, lojikoak denez, kantxako lana, abiadura eta teknika izango dira landu beharreko aspektuak. Gimnasioan pesak eta luzatze ariketak egingo dituzte gehienbat.

**G.** Kirol profesionalarekin duzun lehendabiziko kontaktua da hau?

**E.** Pilota mailan bai. Hala ere, izan dut aurretik kirol profesionala gertutik ezagutzeko aukera. 18 urte daroat gimnasioan lanean eta erakargarria da horrelako erronka bati aurre egitea. Etorkizunean pilotari gehiago eta hobeak egotea nahiko nuke. Asperen helburuetako bat harrobia bultzatzea da eta pilotaren etorkizunerako ezinbestekoa da hori. Hemengo kirola izanik, defenditu beharra daukagu. Garai batean afizioak behe-eragin bazuen ere, berriz ere pilotak merezi duen tokia hartu du, gero eta zaletu gehiago dago.

**G.** Zaletu modura, zer nolako harremana izan duzu pilotarekin?

**E.** Egia esan, azken urteotan ez dut gehiegi jarraitu, baina betidanik gustatu izan zait. Aitak Urretxuko frontoiaren ardura zuen ni txikia nintzela eta kirol benetan erakargarria dela uste dut. Gainera, zenbat eta gehiago murgildu, orduan eta gehiago gustatzen zaizu. Orain gertuagotik jarraitzeko aukera izango dut. **B**



# Estatuko Zeramologia Elkarteko adituak Agirrebeña etxea ikustera

Gaur arratsaldean etorriko dira plaka zeramikoak gertutik ezagutzera

Zeramologia Elkartean IV. kongreso nazionala bilduko da gaur Bergaran. Arratsaldeko 7etan, agintariek harre-  
ra egingo diete Udaletxeko Areto Nagusian eta, ondoren, herriko monumentu nagusiak ikusiko dituzte, arreta berezia eskainiz Agirrebeña etxeari eta bere fatxadako plaka zeramikoari.

Zeramologia Elkartean zeramika artistikoa eta buztingintza tradizionalaren inguruan interesaturik dauden Espainia eta Portugalgo ikerlari, aditu eta bildumazaleak biltzen dira. 1995. urtetik hona urtero antolatu izan dute estatuan zehar gaiari buruzko mintegia.

Aurten, Arabako Ollerietan herriko Euskal Buztingintza Museoak antolatuko du. "Pintoreek eta eskultoreek zeramikari egindako ekarpena" gaiaren inguruan bil-



Agirrebeña etxeako plaka zeramikoak (behean) ikustera etorriko dira.

duko dira gaur eta bihar Gasteizen. Jardunaldi akademikoak Gasteizko Villa Suso jauregian egingo dituzte, baina gaur, eguakitzan, irteera bat egingo dute Ollerietako museoa ezagutzeko eta, ondoren Bergarara etor-


tzeko. Agirrebeña etxeako XVI. mendeko plaka zeramikoak ikustea da gure herrira etortzeko arrazoi nagusia. Gaurko bisitaldian 40-45 bat lagun inguratuko dira Bergarara, tartean Jaime Coll jauna, Zeramologia El-

kartearen lehendakaria eta Valenciako Gonzalez Marti Zeramika Museo Nazionaleko zuzendaria. Ondoren, bisitaldi artistikoa egingo dute kasko historikoan zehar, monumenturik garrantzitsuenak ezagutzeko eta bukatzeko, afari-merienda izango dute batzokian.

## LIBURUA MAIATZAREN 14an AURKEZTUKO DA

Bestalde, Agirrebeña etxeako plaka zeramikoari buruz Antonio Perla hiostoriagileak idatzi duen liburua maiatzaren 14an arratsaldeko 7etan aurkeztuko da Udaletxeko Pleno Aretoan. Antonio Perlarekin batera, Jaime Coll, Victoriano Gallastegi alkatea, Eduardo Estrade Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendaria eta Gipuzkoako Diputazioko Kultura Departamenduko ordezkari bat izango dira aurkezpen ekitaldian.

"Historia de una estufa. Las placas cerámicas del XVI en la casa Aguirrebeña de Bergara" da Antonio Perlaren liburua izenburua. Lehen edizioan, 1.500 ale argitaratuko dira. **B**



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

**ETXAGI**  
**JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

**AZPEITXI**

**Jatetxea**

Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00



Santa Ana ermita oso hondatuta dago eta gaur egun Kultur Etxeko traste zaharrak gordetzen dira bertan.

## Santa Ana ermita birgaitzeko proiektua eskatu du Udalak

### Iñaki Berasategi arkitektoari enkargatu zaio lana

**Santa Ana ermita** birgaitu eta bere ingurua txukuntzeko beharra azpimarratu du Xabier Aranburu Udal Museologoak. Hori dela eta, proiektu eta memoria teknikoaren idazketa lana Iñaki Berasategi arkitektoari eskatu dio Udalak.

Iñaki Berasategi arkitektoak, aipatutako exekuzio proiektu teknikoaren idazketa eta obra-zuzendaritzari dagokion 1.972.000 pezeta-ko aurrekontua aurkeztu du

eta Gobernu batzordeak onartu egin ditu Udal Museologoaren eskaera eta arkitektoaren aurrekontua. Arkitektoak bost hilabeteko epean egin beharko du proiektua.

Udal Museologoak BERRIGARARI adierazi dionez, ermita osoa birgaitzeak 22 milioi pezeta inguruko kostua izango du. Diputazioari diru laguntza eskatu zaio eta erantzunaren zain dago une honetan Udala. Museo-

logoaren iritziz, kostua handia denez, ermitaren birgaitze lanak faseka egin beharko dira seguruen. Horregatik, Iñaki Berasategiri exekuzio proiektu teknikoaren idazketa enkargatu zaio. Horrela, obrak egiten direnean, proiektu bakar batean oinarrituta egingo dira. Santa Ana ermitan San Francisco de Borjak bere lehen meza eman zuen 1551. urtean. Orain ezagutzen dugun ermita XVI. mendekoa da.

## 81 urteko emakume bergarar bat hilik trafikotz

### Apolonia Iturbe, 81

urteko bergararra, auto istripuan hilik gertatu zen joan zen martitzenean Arabako Arrazua-Ubarrundia herrian. Apolonia Iturbe Gasteizera zihoan, taxian, istripua gertatu zenean. Herri zaingo Sailak emandako datuen arabera, istripua goizeko 7:50tan gertatu zen Opel Omega markako taxia eta Renault Laguna markako beste auto batek elkarren kontra jo zutenean. Antza denez, Valladolideko matrikula zuen Renault markako kamioi bati errepidera jausitako pieza metaliko batek eragin zuen istripua. Taxian hiru lagun zihoazen. Apolonia aurrean zihoan, gidariaren ondoran, eta atzean beste pertsona bat. Gidaria, Isidro Aranburu 60 urteko bergararra eta atzean zihoana, 61 urteko arrasatearra, zaurituta Txagorritxuko ospitalera eraman zituzten. Beste autoan, gidaria bakarrik zihoan eta zauri arinak jasan zituen.

Apolonia astero joaten zen taxian Gasteizera dialisia egitera. Bere aldeko hiletak martitzenean egin ziren.

## Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.  
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

## IRURAK PINTURAK O.E.


ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

# Jose Edmundo Alonso, 30 urteko injineru donostiarra, PPko alkategaia

**Jose Edmundo** Alonso 30 urteko donostiarra izango da PPren Bergarako alkategaia. Jose Edmundo injinerua da. Hauteskundeei begira, zinegotzi bat lortzea da popularren helburua, Gipuzkoako PPko ordezkariak BERRIGARARI adierazi diotenez.

Bestalde, UNEDeko aretoa leporaino bete zen joan zen egunean Bergarako Euskal Herritarrok-ek egin zuen aurkezpen publikoan. Datozen egunetarako, bestalde, hainbat ekitaldi antolatatu ditu EHk. Hautagaien zerrenda eta hauteskundetarako programa zehaztu ditu horretarako sortutako plataformak eta atzo, egue-  
na, Miguel Altunako areto nagusian egitekoa zen ba-



Udal hauteskundeak gero eta gertuago ditugu.

ARTXIBOA

tzarreen oniritzia eman behar zion Herri Asanbladak. Bertan, Bergarako Udalerako, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako eta Europako Legebiltzarrerako prestatu

dituen zerrenden aurkezpena eta bozketa egitekoa zen eta, ondoren, 1997ko ekainetik Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu arteko gora-behera politikoen berri

ematen duen bideoa eskaini behar zen.

Bestalde, maiatzaren 8an, zapatua, eguerdiko 12:30etan Euskal Herritarrok-en babes taldearen eta hautagai guztien aurkezpen publikoa egingo da San Martin plazan. Maiatzaren 15ean, berriz, hauteskundetarako prestatu den herri programari buruzko jardunaldiak izango dira. Maiatzaren 3an, bestalde, botoa korreoz eman nahi dutentzako epea zabaltzen da eta honi buruzko informazioa jaso nahi dutentzako bulegoa zabalduko du EHk Irizar kaleko lokalean.

Bestalde, astelehenera arte jendeaurrean ikusgai dago Udaletxean, hautesle-  
ren zerrenda.

## SEINALE BERRIAK

Joan zen astean ekin zioten herriaren erdialdean helbide eta turismo seinaleak jartzeari. Orain arte, Ariznoa plazan, Burdiñateko bidegurutzean eta Fraisko zurin bakarrik zeuden eta aurrerantzean, horiek berriztu eta berriak jarriko dira herriko beste hainbat tokitan. Bestalde, herriaren sarreretan eta monumentu historikoen ondoren ere jarriko dituzte seinale turistikoak. Horrez gain, jarrita zeuden hainbat trafiko-seinale berriztuko dituzte.



**GURIDI** altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA

*Ganbara*  
TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

# Berrigara

365 zenbakia.  
1999ko apirilaren 30a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefona: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.

**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.

**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.

**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.

**Harpidetzatzailea:** Itziar Kortabarria.

**Testuen zuzenketa:**

Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Maripi Laskurain.

**Erredakzio kontseilua:**

Miguel Angel Elkorobezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.

**Komikiak:** Bittor Rodriguez,

Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugaldel, Unai Azkarate.

**Kolaboratzaileak:**

Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

**Banaketa:** Txantxangorri taldea.

**Inprimategia:** Gertu Koop.

Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.

Legorde gutuna: SS 50/91.

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Begarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### MAIATZAREN LEHENA

Langilegoak inoiz ez du ugazabengandik inolako oparirik jaso, lortutako irabaziaz gure lanaren ondorio izan dira eta borrokatzeko grina eta gaitasuna eduki dugun heinean lan baldintzak duintzen joan gara. Horrela, beste lorpen batzuen artean, mende hasierako lanaldi luzeak pixkanaka-pixkanaka egokitzen joan dira, 70ko hamarkadaren amaieran asteko 40 orduko lanaldia lortu genuen arte. Hurrengo hamarkadaren erdian, langileen aldarrikape-nei erantzuteko orduan, esan genezake kasu askotan nora ezean eta beste askotan ezinean azaldu izan gara eta patronalak gure ahuleziaz baliatuz, makina bat lorpen eskuratu dituela.

Orain dela bost urtetik honantz, ELA eta LAB sindikatuok, egoera sozio-politikoaren antzeko azterketa batetik abiatuta, egoera defentsibo batetik erasoaldira pasatzeko konpromisoa hartzen dugu. Poliki-poliki arlo politikoan zein laboralean urrats eraginkorrak

emateaz gain, gure jardura eta mezuak gero eta sarkoragoak bihurtzen dira gizartearen; zalantzarik gabe aurrerapauso nabarmenak eman ditugula esan dezakegu. Dagoeneko konstatazio bat da Estatutoaren ziklo politikoa agortu dela eta herri honetako gehiengo sozialak eraikuntza nazionalaren norabidea hartu duela.

Lan arloan, berriz, 1997an LABek eta ELAk, enplegua sortzeko plangintza aurkeztu genuen Lan Harremanetarako Kontseiluko mahaian eta aldarrikapen batzuetan akordio batera iritsi gara:

- Aparteko orduen erregulazioa, ezinbestekoak diren orduak bakarrik sar daitezke eta kobratu beharrean aisialdirako hartuko dira.

- Ordezkapen kontratua 60 urtetik gorako langileentzat, euren ordez beste langile batzuk kontratatatu beharko direlarik denbora mugagabez.


- ETTko langileei lan egiten duten lantegiko sektoreari dagozkion lan baldintzak aplikatzea.

Baina ezin dugu ahaztu 35 orduen aldarrikapena gure aldarrikapen nagusia dena, oraindik ere lortzeko dagoela eta negoziazio mahai horretan patronalaren jarrera eztabaida hori ekiditea edo denboran luzatzea dela, guretzat hau onartezina delarik. Gainera, ezin dugu ahaztu momentu hauetan ugazaben irabaziaz inoiz baino handiagoak direla (adibide bat ipintzearen, euskal industriaren, enplegurikoko pertsona bakoitzeko batez besteko mozkinak 1994an 654.200 pezeta-koa izatetik 1997an 1.724.000 pezeta izatera igarotzea).

Gauzak horrela, berriro ere mobilizazioak beharrezko direla argi dago eta gure indarra erakusteko lehen aukera maiatzaren lehenean Iruñean egingo den manifestazioa izango da. Hurrengo 35 orduko aldarrikapena dela eta, maiatzaren 21ean egingo den greba orokorra eta gero.... Aurrera bolie!!

Begarako LABeko Herri Biltzarra

## tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Badaukazu kotxia errebisatzeko ohiturarik? Ardurutzen zara kotxia ondo edukitzearekin?



**Maria Pilar Garcia**

Nire gizona mekanika kon-tuetan aditua denez, berak sarritan egiten du kotxearen errebisioa. Ni horretaz ardu-ratu behar izango banintz, kotxea larri ibiliko litzateke.




**Juan Granados**

Egia esan, ez diot kotxeari kaso handirik egiten, ez baitut asko erabiltzen. Tokatzen zaionean eramaten dut garajera, urteko errebisioa egiteko.



**Maria Lucia Catalan**

Nire gizonak askotan egiten du kotxearen errebisioa, bi hilabatero-edo. Kotxea asko erabiltzen du eta beharrezkoa zaio kotxea egoera onean edukitzea.



**Koldo Esnaola**

Normalian tokatzen jakoinian egin izan dut urtekoa. Orain kotxe berrixa daukat, diesela da eta hobeto nabil. Momentuz ez daukat errebisioaren ardurarik.



**Jose Cruz Armendariz**

Nahikoa zaintzen dut, bai. Bidaia luze bat egin aurretik badaukat olioia, ura eta bestelako gauzak ea ondo dauden ikusteko ohitura.



**Jose Ramon Eguren**

Gehiegi ere ez naiz arduratzen kotxearekin baina errebisioa egin baino lehen ikusten ditut olioaren neurria eta horrelakoak. Kotxea egunerok erabiltzen dut.



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

### SEMINARIOKO PATIOKO LIZARRAK

**Aranzadi** Ikastolatik deitu digute aste honetan BERRIGARARA, Seminarioko patioan diren lizar batzuetan ezezagun batzuek eragindako kalteak salatzeko. Aste Santu ostean lizarretako baten azala bueltan urratu zuten eta zauri larriak eragin zizkioten zuhaitzari. Seminarioko patioa lizarrik ederrenari "heriotzeko zauria" egin zioten eta ondoren beste bi lizar ere kaltetuak izan ziren.

Aranzadi Ikastolakoak udal lorazainekin egotekoak ziren zer egin zitekeen aztertzeko, kaltetutako zuhaitzak ahal den neurrian sendatzeko. Era berean, arazo honen gainean ikasleak kontzientziatzeko aprobetxatu dute.

■ ikuspuntua: **emilio vinuesa**

## Arrazoa izan ala ez



Mende bukaerako gerra telebisatu hauei buruzko irudiak jasotzen ditudanean telebistaz, guztiz zaila egiten zait sinestea gatazka horietako aktoreak benetako giza-kiak direla, eta ez filmeetako figura soilak edo, auskalo, *play-station*aren azken nobedadea.

Baina are zailagoa egiten zait sinestea abegoa edo itxaropena galdutako aurpegi

ezezagun haien atzean ezkutatzen direnen bizitza guztiak ere, zein bizimoduak (eta inongo gupidarik gabe) euren lurretatik bidali eta etxeak erre dizkieten besteena, ez zirela, azken batean, hain desberdinak.

Bazkalduan izan ohi dugu horrelakoak ikusteko aukera. Une batez ikaratuarena egiten dugu, baikotzak gaiari buruz duen ikuspuntua agertzen du, eta jateko gogoa kendu digula ere esaten dugu, baina berehala pasatzen zaigu.

Esandakoaren zentzugabekeria erabatekoa izan dadin, ziur dakigu Europaren bihotzean halako ankerkeriaz eta zentzugabekeriak elkar hiltzen ari direnek ia-ia bat datozela gauza guztietan, nazionalitatean izan ezik. Hala eta guztiz ere, gudu-zelaian ez dago horrelako galderarik egiterik.

Norbaitek esandakoa omen da *Aberriaren alde beti, arrazoa izan ala ez*, hori esanda bere gaiztakeriak zurituko zituelakoan, eta esaera horrek ez du gaurkotasunik galdu, batez ere arazoak zartakoz konpontzea gogoko dutenen artean, eta zoritxarrerako, horrelako asko egon izan dira edonon eta edononiz. **13**

■ asteko menua: zubi-berri jatetxea

## Zankarroia ardo beltzarekin



ZORIONE URIBARREN  
Zubi-berri jatetxeko sukaldaria

### OSAGIAK (4 lagunendako)

- Hezurrik gabeko okela (1.600 gramo)
- 6 kipula
- 8 piper berde
- 2 azenario
- 24 kipulatx
- Litro laurden ardo beltz
- Taza handi bat brandy
- Gatza
- Piperbeltza
- Oliba olioa
- Gurina

### PRESTAKETA

- Hezurrik gabeko haragia ondo garbitu eta atzamarraren neurriko zatiak (takoak) egin.
- Zartagin batean, oliba oliotan okela salteatu eta gorritzen hasten denean sutatik kendu.
- Lapiko batean, barazkiak, kipulatxak izan ezik, potxatzen ipini eta ondo beheratu arte eduki.
- Barazkiak beheratu eta gero, okela gehitu eta, apurka-apurka, ardo beltza, brandya eta piper beltza.
- Lapikoa urez bete eta beheratu arte eduki.
- Amaitzeko, kipulatxak oliba oliotan eta gurinetan salteatu.
- Mahaira ateratzeko, haragiaren eta barazkien gainetik kipulatxak ipini.

■ adituen esanetan

## Parkinsona

PEDRO GARCIA, *neurologoa*

Parkinson gaisotasunaren sintomak izen bereko mediku britaniar batek deskribatu zituen 1817. urtean. Ez da, uste den bezala, zaharren gaisotasun bat bakarrik eta dardara ere ez da sintomarik berezkoena, nahiz eta hiru sintoma ohikoetako bat izan. Dardararekin batera, zurruntasuna eta bradikinesia (eguneroko aktibitateetan baldartasuna eta moteltasuna izatea) aipatu behar dira. Hainbat atrofia eta paralisi Parkinsonarekin lotzen dira. Gizon zein emakumeengan du eragina eta gaur egun, Estatu osoan, 80.000 afektatu direla kalkulatu da. Parkinsona ez da gaisotasun hereditarioa eta azken bi

mendeotan egindako ikerkuntzetan ez dira gaisotasunaren kausak argitu. Hala ere, hainbat kasutan, traumatismoek, drogomenpekotasunak edota medikamentuek zerikusia izan dute gaisotasuna agertzeko orduan. Parkinsona industrializazioarekin batera agertu zenez, badirudi pestiziden osagarriekin ere harremana duela.

Gaisotasun neuro-degeneratibo honen gaisoen bizitza kalitatea hobetzeko tratamendu egokia du gaur egun eta, batez ere, ezgaitasun kasuetan gomendatzen dira farmakoak. Zirujia, berriz, azken errekurtsoa izaten da (kasuen %5a bakarrik). **B**

■ bergarako gordailutik

## BERGARAKO BASERRI DENAK (II)

Imanol Sorondo

**Z**oan zen astean baserriaren izena nagusiaren abizenarekin bat zetozenak aipatu genituen eta oraingoan beste bi eratako izenak zeuzkatenak aipatuko ditugu.

Baserriaren izen nagusiaren bigarren abizenarekin bat zetozenak 24 hauek ziren 1657. urtean:

Iriaun, Eduegi, Garitano, Ibargoitia, Azcarrunz (goikoa), Aumategui, Arizpe, Asensua (behekoa), Elizalde, Belastegui, Arando (Barrenechea), Cearreta, Larrarte, Ayardi (behekoa), Elormendi (goikoa), Cortabarria (goikoa eta behekoa), Elorregui (erdikoa), Elorregui (Zelaia), Esaube (behekoa), Esaube (goikoa), Azpileta, Gallaitzgui (Torre), Elorza, Beosin, Artiz.

Izena eta abizena desberdinak zeuzkatenak 104 ziren:

Olaverria, Goenese, Gorostola, Burinaondo (goikoa), Aranguren, Isasmendi, Larrinaga, Abraín, Olalde, Pagalday (behekoa), Ugarte, Santalaitz, Ascasua (goikoa), Ascarrunz, Ascarrunz (azpikoa), Ibarzuri, Aguirrezabal, Eguieder, Pagola, Arrizuriaga (erdikoa), Querexazu, Amillaga (goikoa), Amillaga (behekoa), Santa Lariz, Garitano, Ayardi (sakona), Egusquiza, Munabe, Monasteriobide, Olea, Moyubeitia, Moyualdecoa, Lusurdiano, Narbaiza, Zupide, Urieta, Elcoromuno, Aquegui, Aguirre, Elosua, Iturbegieta, Gaztelu (behekoa), Lizarralde, Larrinaga, Olazabal, Zabala, Eizmendi, Oronzola, Egizabal, Ibarrola, Insorzabal, Zubiurruti (goikoa), Zubiurruti (behekoa), Oyanguren, Gaztelumendia, Elormendi (behekoa), Sagutategi, Achotegi, Arrizuriaga (goikoa), Ibarbaltz, Eguiera, Artolazabal (goikoa), Viliotegui, Ganchegui (goikoa), Malatua, Albiuso, Arzamendi, Arzubi, Goenese, Goenese zelaia, Urteagako Esevarria, Vega, Ipenza, Burinaondo (azpikoa), Errotaegui, Pagalday (goikoa), Amatiano, Aguirre, Olariaga, Aribar, Lesarri (behekoa), Lasturrieta, Verezibar (erdikoa), Guibelondo, Mecoleta (azpikoa), Galarrolaza, Azcargorta (behekoa), Aizcoegui, Aristi, Zalgomendia, Ondarza, Aguirreosin, Mecolalde, Irurio, Perulde, Aguirre Burinano, Iturbe, Aldaeta (azpikoa), Gorosabel, Lesarri (erdikoa), Unzueta (goikoa), Unzueta (behekoa), Urrusti zelay, Labeaga, Gorostegui, Oabide, Zabalotegui, Arrizuriaga (azpikoa), Elorregui (goikoa).

Eta bi gehiago, Irazu eta Ariscar, berrito jasotzen baziren (???) **B**



## Gasteizen patinatzen

Erramu Zapatuan Jardunek antolatutako **Txorimalo lehiaketan saritutako gaztetxoak Gasteizko izotz pista** izan ziren apirilaren 17an. Txapelketan 14 urtetik beherakoen arteko 3 lehendabiziko taldeek patinatzerara joateko irteera eskuratu zuten sari gisa eta beraiekin batera Jardunek antolatzen dituen **euskara errefortzuetan** dabiltzan OHO 5. eta 6. mailako ikasleak izan ziren. Guztira, 32 lagun izan ziren eta neskek estilo eta trebetasun handiagoa erakutsi zuten patinatzeko orduan. Hurrengora arte!!



## Kazetari gaztetxoak

**Aranzadi Ikastolako** Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleak bisitari izan genituen BERRIGARAN. Ikasleak komunikabideak aztertzen ari dira eskolan eta, **Aintzane Ugalde eta Luisi Lasa** andereñoen laguntzaz, BERRIGARA zela egiten dugun gertutik ikusteko aukera izan zuten. Boligrafo eta koadernoarekin etorri zitzaizkigun eta galdera mordo egin zizkiguten. BERRIGARAREN etorkizuna ziurtatuta dago...

## Zezenzaleak Orozkon

**Bergarako Zezenzaleak** taldeak Orozkoko **Benigno Manzarbeitiaren ganadutegia** bisitatzeko egun osoko irteera egin zuen zapatuan. Goizean 55 lagun abiatu ziren autobusez Orozkora eta bertan hamarretakoa egin ondoren, ausartienak txekorren aurrean aritu ziren, gainontzekoen gozamenerako. Ondoren, soinu eta guzti, herria ezagutzeko aukera izan zuten eta jarraian mahai baten bueltan bildu ziren guztiak Manzarbeitiaren jatetxean ederki bazkaltzeko. Bazkalostean ere txekor, poni eta bestelakoekin ere primeran pasatu zuten herriko zezenzaleek. Aurtengo Pazkuetako entzierroetako baten Manzarbeitiaren txekorrak erabiliko dira. Zenbaitzuk ehtrenatzen hasi dira dagoeneko...





## SALOU Maiatzaren 21etik 25era. Mantenu osoa

Hotelak	Prezioa bus barik	Prezioa busa barne	Gau 1+	3. eta 4. PAXa	1. umea	2. umea	Adina	Banakako gehigarria
LOS ANGELES	11.540	18.050	2.775	%25 eta %25	%100	%50	2-11 BG	1.100
VORAMAR	11.790	18.290	2.850	%25 eta %30	%100	%50	2-11 BG	1.100
SAN DIEGO	11.935	18.435	2.850	%25 eta %25	%100	%50	2-12 BG	1.100
JAIME I	14.335	20.735	3.125	%20 eta %20	%50	%50	2-9 BG	2.100
LAS VEGAS	12.895	19.400	3.100	%20 eta %20	%50	%50	2-12 BG	1.300
AUGUSTUS	13.300	19.800	3.025	%50 eta %50	%100	%50	0-13 BG	1.600
EUROPA PARK	13.385	19.885	3.200	3. PAXa %20	%50	EZ	2-11 BG	1.600
DELFIN PARK	13.835	20.335	3.325	%20 eta %20	%100	%50	2-12 BG	1.200
PLAYA PARK	14.375	20.875	3.450	%30 eta %30	%100	%50	2-12 BG	1.100
BELVEDERE	15.475	21.975	3.750	%30 eta %30	%50	%50	2-11 BG	1.600
SAN FREANCISCO	16.025	22.525	2.950	%25 eta %25	%50	%50	2-11 BG	1.100
OASIS PARK	16.475	22.975	3.025	%25 eta %25	%50	%50	2-11 BG	1.100
MICHELANGELO	19.950	26.450	3.675	%30 eta %40	%40	%40	2-11 BG	1.100

## LANDAK

### CAMPING CLUB LA PAILLOTE

4 gau  
4 plazako movil-homea  
**23.000**  
pta.tik aurrera/movil-homea

### LE HUCHET

4 gau  
5 plazako bungalowa  
**28.850**  
pta.tik aurrera/bungalowa

### LE BOUCANIER

4 gau  
2/4 plazako estudioa  
**32.000**  
pta.tik aurrera/estudioa



Irizar 1 • Tf. 943.76.26.76 - 04.71 -12.67 • BERGARA



**VIAJES EROSKI**  
B I D A I A K

► Prezio Onak baino gehiago





# kontuola

**KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 36 zenbakia. 1999ko apirilaren 30a.

## Cesareo Gabarain liburuaren aurkezpena larunbatean

“Antzuola Herria” ikerketa bekaren bigarren lana da

Maiatzaren lehenean zortzi urte beteko dira Cesareo Gabarain zenaren aldeko hileta elizkizuna egin zela Antzuolan. Hori dela eta, Udalak egun hori hautatu du bere biografia jasotzen duen liburua aurkezteko.

**A**ntzuola Herria bekaren bidez egin den lan honen aurkezpena Errukizko Amaren parrokian egingo da zapatuan, 19:45etan. Hantxe izango dira Mikel Larrea alkatea, Iñigo Ramirez de Okariz kultura zinegotzia eta Marijo Deogracias, liburuaren egilea.

### AURKEZPEN EKITALDIA

Cesareo Gabarain, konposatu zituen eliz kantuengatik egin denez ezagun, herriko abesbatza eta txistulari taldea elizan egongo dira emanaldia eskaintzeko. Ondoren, 20:15etan, Donostiako Mariaren Bihotza abesbatzak Cesareoren hainbat abesti eskainiko ditu. Aurkezpenaren ostean luntxa egongo da udaletxeko batzar aretoan.

### ANTZUOLA HERRIA

Jadanik martxan da Antzuola Herria ikerketa bekaren laugarren edizioa. Antzuolako herri ohiturak bildu nahi dira oraingoan. Horretarako, pertsonaren bizitzako gertaera nagusiak, hala nola, ezkontza, bataioa, heriotza eta bestelako gertarako aztertu beharko dira. Bigarren atal batean erlijioa aitzakitzat harturik, erlijio-

arekin lotura duten eta ez duten ohiturak aztertu beharko dira. Azkenik, hirugarren zatian jaiak, ospakizunak eta bestelakoak jaso beharko dira.

Euskal Herriko herrietan ohitura antzekoak izaten direnez, Antzuolako ohituren bereizgarriak jaso beharko dira lan honetan; herriaren ezaugarri propioak jaso beharko dira, beraz.

### BEHARREZKO DATUAK

Ikerketa beka honetara aurkezteko lizentziatu titulua izan behar da. Bekak 700.000 PTA-ko dirulaguntza aurreikusten du. Eskariak aurkezteko epea maiatzaren 31n amaituko da. Norberaren datuez gain, lana zela egingo litzatekeen azaltzeko memoria bat aurkeztu beharko dute interesatu guztiek.



Cesareo Antzuolalan egoean osatu zuen saskibaloi taldea, Hanka Luze-

Herriko abesbatzak eta txistulari taldeak hartuko dute parte aurkezpen ekitaldian

Joan zen apirilaren 10ean aske gelditu zen Patxi Olabarria. Martutenen zegoela askatu zuten, baina aurretik Alcala Meco eta Navalcarnero kartzeletan ere egon da 27 urteko antzuolarra. Hiru urte eta erdi pasatxo egin ditu kartzelan Patxi eta zigorraren hiru laurdenak beteta zituen arren, ez dute askatu orain arte. Azkenean zigor osoa bete du, nahiz eta egun bat edo beste kendu dioten ikasketak direla eta.

Patxi Olabarria, preso ohia

# “Hemengo notizien egarri”



Jende askok eman nahi izan zion ongietorria Patxiri, pilotalkeuan.

## Z e sentitu zenuen Antzuolara iritsi zinenean?

Bueno, lehenengua irten nitzanian izen zan! Martutenetik irten nitzanian eta ikusi neban jente pilliak, danak animatzen eta bestia... Hortik hasitta “pasauta” geldittu nitzan. Eta gero hona aillegau! Hemengua izen zan gehixegikua. Gaiñera herri txikixa izenda, danak ezagunak... Harrezkero be, oindio be kalera denboraz irtetzen naiz, beti dago batenbat ikusi ezotena eta. Danak etortzen die agurtzera eta zer moduz nagon galdetzera... Baiña “gozada bat” da. Hasi umietatik eta helduenera arte, danak agurtzen nabe. Ume txikixak seiñalau egitten nabe!

### Erraza da horrela jardutea?

Ez! Baiña pasauko da. Egun batzutan pasauko da, pasau biharra dago eta.

### Omenaldi bazkaria ere hunkigarria izango zen zuretzat?

Aurreko dana baiño gehixago izen zan. Hainbeste jente ikustia frontoian! Nik enekixen zeñek ze egin bihar zeban eta han irten zien kantuan, bertsoan... Gero, gaiñera, aitta be erten zan. “Enzerona” bat izen zan hori! Erregaluak pe... etxian be ezakit nun jarri!

### Azkenean kartzela zigor osoa bete duzu

Bai, uztail aldian bete nittuan hiru larenak. Estudixatzen egotiagaittik emoten dittue egunak eta ni magisterio egitten ibilli naizenez (azkenengo urtian na-

bil), egunak kentzen dotsue, baiña berez osua egin dot. Kodigo zaharrakin kondenuatu gintuzten eta haren arabera barruan zaren bi egunegaittik zigor egun bat kentzen dotsue.

### Han zarela baina, kalkulu horiek egiten dira?

Ez. Beti txarrena pentsatzen dozu. Erak esaten dotsuenian igual kalkulatzen dozu, baiña aurretik hasten baldin bazara...

### Zela bizi izan zenuen barruan zeundela “ni banao” esatea?

Gogorra izen zan barruan lagunak lagatzia... Goizeko zortziretan gauzak gertatzen nebillela danak agurtzera jun nitzan. Batzuk gosaltzen zeren, beste batzuk dutxan... eta nahiko gogorra izen zan. Barruan zarenian eta batenbat irtetzen danian pozten zara beragaittik. Eztozu gaizki pasatzen, baiña irtetzen da-

nak gaizki pasatzen dau. Lagun haundiak egitten dittuzu han barruan! Egoeria ezta normala eta nahiko egoera gogorak bizi izeten die sarritan. Sortzen dan amistadia ezta ahazten. Kanpuan zarenian erekin akordatzen egoten zara.

### Nola antolatzen zenituen barruan egon zinen egunak?

Goizian deportia, gero periodikua leittu, ikasi... Erak dana antolatuta dauke. Berez eztaukuzu ezebe egitteko, baiña aldi berian eren ordutegira moldatu bihar zara. Rekuentua, armozua, gero antxitxika zeldara zeozter hartu nahi baldin badozu, itxi egitten dabelako. Patixora juteko be antxitxika. Han sireniak josten dabenian barrura... Eguna moztuta dauke erak. Ordutegi fijo bat egunero, jai izen, Gabonak izen edo asteko egun bat izen. Edozein egun dala be, danak igualak die.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**igok eta Txomin**

*Pintura orokorrean.*  
Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.  
Gotelesa, iztukuak eta  
bestelako imitazioak.

ANTZUOLA      BERGARA  
☎ 943 76 60 39    ☎ 943 76 19 98

**Arin**

**Euskal sukaldaritza**

**Eguneko menua**

Kalebarren 7, ANTZUOLA    Tf. 943 78 71 12

# ... eukitzen da barruan"

## Nolatan maisu ikasketak egitea?

Zerbait egितearren hasi nitzan. Alcalan etzeguan ezebe. Segun ze kartzelatan polideportibua, bibliotekia edo zeozer egoten da, baiña han etzeguan ezebe eta orduak zelabait pasatzeko estudiatzaten hasi nitzan. Gero gustau egin jat eta oin opor batzuk hartuko dittut eta gero bukatu egin biharko dot.

## Nola bizi izan dituzu kartzela batek besterako aldaketak?

Kartzela barruan be aldatu nabe leku. Alcalan, adibidez, modulo baten egon edo beste baten, zihero diferentia da. Aldatzen zaittuenian berriz hasieratik hasi bihar zara. Pare bat hillebetian galduta egoten zara eta gaiñera jeneralian aldatzen dabenian "leku horretan ondogi" zarelako aldatzen zaittue. Lehenengo aldiz moduloz aldatu ginttuztenian Angel Figeroakin nenguan eta eren familixakak akzidentia euki zebe bisittara zetoze, eta bere amama hil egin zan, eta egun hortan bertan moduloz aldatu ginttuen, eta bera bakarrik laga zebe, justu lagunak onduan euki biharra zeukanian. Inpotente sentitzen zara.

## Zein izan da hiru lekuetatik gogorrena?

Navalcarnerora aillegau giñanian (kartzela bezela Meco baiño dexente hobeto egon arren) bost euskaldun genden eta bakoitza modulo baten ipiñi ginttuzten. Esan zoskuen ez giñuala alkar ikusiko eta bakarrik egongo giñala. Gero ohi-ttu egin zara, baiña hasieran... Bestela danetik, momentu txarrak eta hobiak eukitzen die.

## Pollerua eta Eltzikortarekin harremanik izan duzu?

Kartzelatik kartzelako korreua be badago, baiña kartia hillabete bat edo bi beranduago jasotzen da eta haren eran-

tzuna jaso orduko beste horrenbeste. Eta ezta erreza holako harreman bat eruatia, baiña bai egin izen dot. Gero, aparte lagunen eta etxekuen bidez.

## Badakizu zenbat bisita izan dituzun?

Uf! Bisiten listia sekulakua zan. 52 aste dauka urtiak, bider hiru edo lau, ixa 200. Bakoitzian hiru edo lau lagun...

## Nola bizi izan zenuten Lizarra-Garaziko hitzarmena?

Kalian bezela barruan be; oso ondo hartu zan. Momentu horretan beste batekin nenguan eta berba egitteko aukeria euki giñuan. Hemengo notizien egarria eukitzen da han barruan.

## Nola ikusten duzu Euskal Herriaren etorkizuna?

Ikusi da ze bide hasi dan eta horri segidu bihar jakola argi dago. Pasatzen dana da, goiko mailletan nahiko zuzen doiarrela eta basetan oindio ezta bihar dan bezela landu. Igual zabaldu ezkeror zer esaten daben Lizarra-Garaziko akordixuak... Horren inguruan lan egin bihar



da. Baiña oindio ez gare bake prozesu baten. Ikusten da Madril egitten dabilena, euskaldunon artian harremanak apurtzen saiatzen dabit.

## Presoen aldeko mobilizazioei buruz zer diozu?

Sartu giñanian ez giñuan imajinatu be egitten irten naizenian ikusi dotena. Urtarrilaren 9ko manifa haura oin dala urte batzuk eztozu imajinatzen. Mayor Orejari gauzak etxako ondo eriten presuen kasuan eta hori ikusi egitten da, nik ikusi dot hemen Antzuolan, etorri eta halako harrerria eta... Ezta lortu gu bazartzia, presuak ikusten da herri honek maitte dittuala.

## Gauzak asko aldatu dira, beraz, hirurte eta erdi luze hauetan?

Bai. Lizarra-Garaziko hitzarmena siñatu zanetik bai. Etorri naizenian eta Euskal Telebista ikusi dotenian... Lehen edo orain ikusi, alde edarra dago! Dana dala, kartzelako egoeria ezta aldatu eta zeoze aldatu baldin bada beti okerrera. Espaiñolak ezta nahi gauzak aldatzia, hortaz, espaiñolekin jai dauku.

## Zer esango zenieke Pollero eta Eltzikortari?

Bixei eta barruan daren eta Kontuola irakurtzen daben beste danei be, agur bero bat eta gogor segitzeko, zain gare eta!

■ ■ ■  
*"Martutenetik  
 irten nitzanian eta  
 ikusi neban  
 jente pilliakin,  
 danak animatzen eta,  
 "pasauta" geldittu  
 nitzan"*  
 ■ ■ ■



Jose Gomez  
 Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola  
 943 76 60 19  
 943 76 60 43

**GOROSTI**  
**Taberna**


☎ 943 76 62 96  
 Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
 Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak  
 Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

# Balkoi eta lora ederren lehiaketa



15.000 PTAko saria eskuratuko du irabazleak.

Iritsi da **balkoiak** eta etxe aurreak apaintzeko garaia. Jadanik martxan da balkoi eta lore ederren lehiaketa. Laugarren urtez antolatzen da lehiaketa hau herrian eta etxearen kanpoaldean loreak dituzten antzuolar guztiek hartuko dute parte. Izan ere, norbera loreak txukuntxukun ipintzeaz baino ez da arduratu behar. Ez da izenik eman behar inon.

Udaletxeko hainbat kidek jardungo dute herrian dauden adibideak ikusi eta hautaketa egiten.

Oraindik ez badituzue loreak behar bezala jarri, denboraz zabilzate oraindik. Saria ez da ekaniaren 23a arte banatuko, hau da, San Joan bezpera arte. Sariak merezi du, 15.000 PTA daude joan.

## PIRINIOETARA IRTEERA

Orhi eta Auñamendi (Anie) mendietara irteera antolatu du Arrolak. Euskal Mendizale Federazioaren 75. urteurrena ospatzeko antolatu diren ekintzen barruan, Euskal Herrian dabilzan bost makiletako bat Arrolak hartuko du Orhi mendian. Astebete beranduago Txindoki gainean Eibarko mendizale taldeari emango diote makila. Pirinioetara maiatzaren 8 eta 9an joango dira. Izen ematea, maiatzaren 3 eta 4an, 19:30etatik 20:30etara, Arrolaren egoitzan.

## DYAREN ALDEKO KUESTAZIOA

Deba Garaiko DYAK urteroko diru eskaria egingo du maiatzean. Maiatzaren lehen eta bigarren eguna hautatu dituzte horetarako. Zapatu eta domeka horretan kuestazioa egingo da DYaren alde. Urteko aurrekontuari aurre egiteko antolatzen ditu kuestazioak, 11.460.000 PTA-ko aurrekontua, hain zuzen ere. Kuestazioa goizez zein arratsalde izango da, bi egunetan.

## KUKUMARRO LEHIAKETA

San Isidroak datozela eta Udalak kukumarro lehiaketa antolatu du. Lehiaketa haur, gazte, heldu eta jubilatuentzako da. Beraz, jarri burua martxan eta eskua lanean eta txorimaloak egitera. Sariak iaz bezala, San Isidro egunean banatuko dira, egiten den azokan.

## Dotore, benetan dotore

**Dotore oso irten ziren** joan zen apirilaren 17an Bergarako Ipintzako institutuan ikasten ari diren antzuollarrak jende aurrean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailakoek moda desfilea egin zuten institutuan ikas-bidairako dirua ateratzeko.

Iosu Agirre, Sergio Sanchez, Maialen Madariaga, Iosu Zubikarai, Ion Pagaldai, Ugaitz Iturbe, Irune Manzidor eta Larraitz Berraondo desfilatzen aritu ziren. Iban Unanuek, bestalde, aurkezle lanak egin zituen. Argazkian Larraitz Berraondo; praka estuak, nikia eta poltsa batekin.




**MUEBLES  
IGEA**

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

**AITZ-GARBI**



**taberna  
jatetxea**

**Pintxoak eta kazuelatxoak.  
Bazkariak eta afariak**

**Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51**



**ECUADOR**  
BIDAIK

# BERGARA

Salou 99

## Maiatzaren 21etik 25era

Hotel Molinos Park ***	15.100
Hotel Los Angeles ***	16.500
Hotel San Diego ***	16.700
Hotel cap Salou ***	17.100
Hotel Cala Font ***	17.300
Hotel Europa Prk ***	18.500
Hotel Jaime I ***	19.700
Hotel Belvedere ***	20.200
Hotel Estival Park ****	24.000

Luxuzko autopulmana eta mantenu osoa prezioan sartuta daude


Kontsulta itzazu beste hotel batzuetako  
egonaldien prezioak eta...

**UMEENTZAKO ETA HIRUGARREN ETA  
LAUGARREN LAGUNENTZAKO DESKONTUAK!**

Informazioa eta erreserbak Ecuador Bidaiak-en.

**Tf. 943 76 44 45 - 943 76 15 33**

**Arruriaga 10, BERGARA**



Maiatzaren lehena, 1930eko kartela.  
Gustav Klucis .

# 35 orduko lan astea aldarrikatuz

## Gehiengo sindikala bat eginik

**E**LA, LAB, Ezker Sindikala, STEE eta EHNE sindikatuek eta Hiru garraiolarien federazioak deituta, manifestazioa izango da bihar eguerdiko 12etan Iruñean. UGTk eta CC.OOk, aldiz, Bilbon, Gasteizen eta Donostian egingo dituzte biharko ekitaldiak. Bergararik autobusak izango dira Iruñera joateko: LAB sindikatuaren autobusak goizeko 10:00etan aterako dira Beheko Estaziotik, ordu laurden beranduago ESK sindikatuaren autobusa irtingo da

**Bihar, maiatzak 1, Langileen eguna ospatuko da. Garai batean egun honek zuen indarra berreskuratzeko lanetan ari dira sindikatuak. Aurtengo eguneko ekitaldiak datorren maiatzaren 21erako deituta dagoen greba deialdiarekin lotu nahi izan ditu gehiengo sindikalak.**

toki beretik eta 11:00etan, berriz, ELAk antolatutako autobusak. Sindikatuek garai batean maiatzaren 1ak zuen erantzuna jasotzea espero dute bihar. Manifestazioaren ondorengo bazkarian 8.000 lagun biltzea aurreikusten dute.

Xabier Garitano Bergarako ELAko arduradunaren arabera, "biharko ekitaldiarekin maiatzaren 21erako deituta dagoen greba egunerako motorrak piztuko ditugu. Joan zen urtean LABek eta ELAk manifestazioa elkarrekin egin ba-

### JOSE RAMON KORTABARRIA Sindikatuak langilea

**J**ose Ramon Kortabarría "Moztu" Iruñeko manifestazioan izango da bihar. 1978tik Bergarako Altos Hornosen lanean ari da eta 1982an LAB sindikatuari afiliatu zen; "eskolatik zuzenean fabrikara joan nintzen eta lan mundua piskat ezagutu arte ez nintzen afiliatu" dio Jose Ramonek. Bera lanean hasi zene-

tik hona sindikatuen eta langileen arteko harremana asko aldatu ei da; "oraindik ere beharrezkoak dira baina gauzak desberdinak dira gaur. Nahiz eta jendea afiliatuta egon, bakoitzak bere aldetik jotzen du gehiago. Lehen, berriz, edozein hitzarmen negoziatzeko orduan astebeteko greba egoten zen eta gaur, aldiz, enpresa eta langileen arteko harremana bestelakoa da. Asanblada zabalik ez dago, adibidez, gure enpresan, sindikatu bakoitzak bere bilerak egiten ditu".

Sindikatuak 35 orduko lan astearekin lanpostu gehiago sortuko direla diote. "Moztu"ren iritziz, "teknolo-



giaren eraginez, lana gutxitzen doa eta dagoena banatu egin behar da, baina zalantza pila bat dago tartean, jendeak ordu-estren kontuarekin neuririk

hartzten". Enpresariak ordu horiek desagertzea jo behar dela esaten dute, baina ez dute ordu-estren kontuarekin neuririk hartzen".

*"Nahiz eta jendea afiliatuta egon, bakoitzak bere aldetik jotzen du gaur egun"*

## MAIKA eta JESUS BOROBIA

### Langile autonomoak

**M**aika eta Jesus Borobia lehengusuek Tabomar enpresa sortu zuten duela 14 urte. Orain dela zazpi urtetik San Juango Aribar poligonoan duten tailerrean ari dira lanean. Lan tokiaren kasuan baldintzak asko hobetu dira lehen zeukaten tailerrarekin konparatuz gero. Makinak hasierako berberak dauzkate. Mayc, Lacor edota Ildardia (Bizkaiko enpresa bat) lantegietarako gar-

bigailuak eta zartaginak egiteko piezak lantzen dituzte. Aipatutako enpresen eskariaren arabera, alde handiak izaten dituzte urtean zehar lan kopuruari dagokionez. Langile autonomoak dira biak, "guretako merkeena delako, segurantzaz sozialeko gastuak ordaintzea garestiegia irteten zaigu eta".

Jesusek eta Maikak ez dute langileen eguna ospatzen, fetxa sinboliko hutsa dela iruditzen zaie: "lehen, beharbada, langileen artean esanahi handiagoa edukiko zuen". Sindikatuek aldarrikatzen duten 35 orduko lan astearen kontua ez dute hain garbi ikusten; "benetan enplegua sortzeko neurri-

egokia izango balitz, ondo legoke. Enpresa batean lanpostu fijoak dutenez ere aldarrikapen lojikoak iruditzen zaigu. Dena den, autonomoen kasuan, baldintzak desberdinak dira; baja hartutakoan adibidez, le-

hendabiziko hamabost egunean ez duzu zentimorik ere ikusten. Gastuak handiak dira eta prestazioak, aldiz, minimoak. Egia esan, gure zalantzak, ditugu neurri horren komenientziaren gainean".



*"Langile autonomoen kasuan gastuak handiak dira eta prestazioak, aldiz, minimoak"*

genuen ere, aurten batasun handiagoa lortu da. Lizarra-Garaziko Akordioarekin zabaldutako biderei eutsi nahi diogu". Jose Luis Loidi "Rosli" LABeko ordezkariaren hitzetan, "maiatzaren 21era begira, indar erakustaldia izan behar da biharko manifestazio bateratua. 35 orduko lan astea aldarrikatzeko deitu dugun grebaren inguruan ados gaude". Juan Jose Azkarate "Errota" Ezker Sindikaleko Bergarako arduradunak sindikalismoan frentismoa nabaritzen du;

"gure artean batasuna badago ere, UGTk eta CC.OOK beste bide bat hartu dute eta alderdi politikoaren artean dagoen frentismoa islatzen da. Dena den, aurtengo langileen eguna piskatiferentea da hainbat sindikatu nazionalen Iruñean biltzen garelako. Hori positiboa da".

### MAIATZAREN 21EKO GREBA

Greba Bergarako jaiak hasten diren egunerako konbokatuta da. Rosliren iri-

tziz, "ez daukat zalantzarik industria sektorean eragin handia izango duela eta ostalaritzari dagokionez, ELAk eta LABek bilera egingo dugu maiatzaren 5ean eskualde guztiko problematika aztertzeko". Garitanoren ustetan, "nahiz eta jaiak izan Bergara ere geratu egin beharko litzateke, greba EAE osorako deitu da eta. Beste gauza bat izango da gaueko 12etan tabernak-eta zabaltea, baina goiz eta arratsaldez itxita izan beharko lirakeela uste dugu". **B**

## ROMAN URIARTE

### Sindikalista izandakoa

**R**oman Uriartek (78 urte) 49 urte egin zituen Zerrajeran lanean, 1984. urtean jubilatu zen arte. Laneko lagun batek animatuta, ELAn afiliatu zen 1944an; "garai hartan oso afiliatu gutxi ginen, sindikalismoan hutsetik hasi ginen. Gure sasoiari beldur handia zegoen eta nahiz eta jendea langileon aldarrikapenekin ados egon, ez zen ausartzen aurrera egitera. Guk alderdiarekin bat egin genuen. Alde batetik abertzaleak ibiltzen ginen eta, beste-

tik, sozialistak, komunistak... Sindikatuen lana, nagusiki, Francoren errejimenari kontra egitea zen eta halakoetan batasun handia egoten zen".

Francoren denboran San Jose obrero eguna ospatzen zen maiatzaren 1ean; "guk San Andres egunean ospatzen genuen langileen eguna eta sozialistek maiatzaren 1ean. Gero goitik etorri ziren agindu batzuk maiatzaren 1ean egin behar genuela eta halaxe egin zen. Hasieran fabrikek lan egiten zuten egun horretan eta beranduago jai hartzen hasi zen". Sindikatuek oraindik ere indar handia dutela dio; "35 orduko lan astea aldarrikatzen



*"Gure sasoiari sindikatuen lana, nagusiki, Francoren errejimenari kontra egitea zen"*

ari dira. Behar handia dago eta batzuek eta besteek euren arrazoiak izango dituzte. Beste batzuk lanean jartzeko izango balitz ondo ikusiko nuke hori, baina ez daukat datu zehatzik iritzi bat emateko". Bere garaiari lorpenen artean, jorنالaren igoera gogoratzen du; "jendea kooperatibetara irteten hasi zen eta zuzendaritzak jorнала bikoiztu egin behar izan zigan langileoi eusteko. Enpresarekin gogor egin behar izaten genuen, preparazio handirik ere ez geneukan, baina aurrera egiten genuen".



# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### DOMEKAN BARRUAN

PLAY OFFAK

12:00: Errotagain-Mongatxurak

Antolaketa

KOPA TXAPELKETA

16:00: Mo(ko)lotov-Azpeitxi Jatetxea

Antolaketa

17:00: Ortzí-Guadalest

Antolaketa

18:00: Bar Canalejas-FAC

Antolaketa

PLAY OFFAK

19:00: SLP-Bildurbarek Opel/Lam

Antolaketa

KOPA TXAPELKETA

20:00: Jauja OH Zerezos-Pagomendi

Antolaketa

## argi!

### Partidu gutxi asteburuan

Estatuko selekzioen arteko txapelketa dela eta, sei partidu besterik ez dira jokatu asteburuan. Partiduak domekan jokatu dira barruko kantxan.

### Labegaraietako finalak


Bestalde, Antolatzaile Batzordeak adierazi duenez, txapelketako finalak Bergarako jaien ostean jokatu dira seguru asko. Dena dela, batzordeak ez du egun eta ordutegiaren erabaki zehatzik hartu.

## emaitzak

### KOPA

Azpeitxi jatetxea-Urrutxurtu	6-1
Bayer-Pagomendi	0-3
FAC-Ari Ari	3-3
Errotagain-Jauja OH Zerezos	1-2
Matxakategi-Ortzi	2-6
Ion Autoak-Mo(ko)lotov	2-3
Iribide Jatetxea-Guadalest	5-7
Bildurbarek Opel/Lam-Bar Canalejas	2-7

## jokoz kanpo



JAIO MANZANEDO  
Ion Autoak

G. Kopatik kanpo geratu zarete.

E. Mo(ko)lotovek 3-2 irabazi zigun.

Aurrekoan irabazi egin genien baina... play offari dagokionez, laugarren mailako hirugarren geratu ginen eta ez genuen sailkatzerik izan.

G. Zela ibili zaretela iruditzen zaizu?

E. Aurreko urteetan baino okerrago.

Ez dugu zortirik izan. Erakutsitako jokoa arabeko tokian amaitu dugu.

G. Ipintzan jokatzeko asmorik?

E. Talde bezala ez, baina banaka batzuk beste talde batzuekin jokatu dugu. Aurreko urteetan Xurruapak taldearekin aritu izan naiz.

G. Zein postutan jokatu duzu?

E. Aurrean. Taldean 10 bat lagun gaudete eta banatu egiten ditugu tokiak.

G. Aurtengo txapelketa zer iruditu zaizu joko sistema eta antolaketari dagokionez?

E. Ondo antolatua egon da, baina arauak ikasten dituzunerako aldatu egiten dituzte.

G. Zenbat urte Labegaraietan?

E. Nire taldea, hasi zenetik, baina nik lau urte daramatzat.

G. Urte onena zein?

E. Iazkoa. Hirugarren mailako lehenengo taldea izan ginen eta play offetako bi partidu irabazi genituen gainera.

G. Datorren denboraldirako proposamen berri bat.

E. Ahalik eta partidu gehien barruan jokatzeko.

## gora eta behera



### Jauja OH Zerezos

Txapelketa osoan zehar Errotagain taldea aurrealdean ibili da, beti ere gora-beherak izan baditu ere.

Asteburuan Kopako jardunaldian, lehen mailan jardun duen Jauja OH Zerezos Errotagain txapelketarik kanpo laga du 1-2ko emaitza lortu ondoren. Bestalde, bi talde hauek jokatu partiduan joko ona ikusi ahal izan zela ere aipatu beharra dago.



### Bildurbarekek kopa utzi du

Kopatik kanpo geratu den lehen mailako bigarren taldea, Bildurbarek Opel Lam taldea izan da. Hanek ere, lehen mailako baten kontra jokatu behar izan du eta ez du zortirik izan.

Bar Canalejasek 2-7 emaitzarekin irabazi zion. Bildurbarek taldea Kopatik kanporatua izan arren, play offak jokatzeko dirhardu.

## nesken futbitoa

### EMAITZAK

Gu geu-Tetsi	5-3
Potzu ta Zapaburuak-Nifits	7-4

### SAILKAPENA


Gu Geu	9 puntu / 3 partidu
Potzu	9 puntu / 4 partidu
Nifits	3 puntu / 3 partidu
Tetsi	0 puntu / 4 partidu

### PARTIDUAK

Domekan M. Altunan

16:30: Potzu ta Zapaburuak-Tetsi / Nifits

17:30: Nifits-Gu Geu / Potzu ta Zapaburuak



Irizar 2

☎ 943 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**



**PINTURAS BERGARA S.L.**

• INDUSTRIARAKO PINTURAK  
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK  
• ERROTULOAK

Aranerrek 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.



## kronikak


**Futbola  
Bitorren  
neskak  
lehenengo**

Joan zen asteburuan Bergara eta Mutrikuk jokatuako partidua oso interesgarria izan zen. Hasieran, jarraian egindako bi golei esker Mutrikuko neskek izan ziren partidua jabe egin zirenak; baina Bitorren neskek atsedenaldira iritsi baino lehen gol bat egin ahal izan zuten.

Bigarren zatian, ostera, joko ederra erakutsi zuten bergarrek eta honi esker, beste bi gol egin zituzten eta partiduari buelta eman zioten, izan ere, mutrikuarrek ezin izan zuten besterik egin. 3-2ko emaitza honek bergararrak sailkapeneko lehenengo postuan jarri ditu. Bitorren neskek, Urkiren kontra neurtuko dira domekan


**Eskubaloia  
Iraundi  
Bergara  
azken**

Badirudi azkenaldian, Iraundi Bergara eskubaloia taldeari gauzak petral samar ateratzen ari zaizkiola. Xabier Lijok entrenatzen duen taldeak Legazpiren kontrako partidua 23-30 galdu zuen joan zen asteburuan. Bi penalti eta hiru kontraeraso huts egin zituzten lehen zatian eta 11-15eko emaitzarekin joan ziren aldagelatar.

Bigarren zatian antzera samar ibili ziren beste bi penalti huts egin eta ez zuten beste lau kontraeraso aprobetxatzen jakin. Ondorioz, bergararrak Legazpik utzitako azken postuan jarri dira. Lijoren mutilei hiru partidua falta zaizkie eta asteburuan Ormaiztegiren kontra jokatu dute.


**Saskibaloia  
Jubenil  
neskek igo-  
tzeko aukera**

Azken jardunaldian Intxaurrendoren kontra jokatu zuten. Intxaurrendorak sailkapeneko azken postuan daudenez, erraz irabaztea pentsatzen bazuten ere, hasierako minutuetan bergarrek kale ugari egin zuten saskiratze-jaurtiketan eta, ondorioz, 16-24 amaitu zuten lehen zatia.

Bigarrean, ostera, aipatutako hutsak zuzenduak eta defentsa-lana ondo beteaz, aurre hartu zieten donostiarrei. Partiduak buelta eman zuen. Aipagarria benetan kadete mailako Saioa Sasiain ere nagusiekin aritu zela eta oso ondo gainera. Bost partiduren faltan, laugarren daude sailkapenean eta mailatik igotzeko aukera asko dituzte.

**KARTELDEGIA**
**FUTBOLA**
**Bergara-Pasajes**

Jubenil mailako mutilak  
Zapatua. 11:30. Ipintza

**Bergara-Trintxerpe**

Preferente maila  
Zapatua. 16:30. Ipintza

**Bergara-Urki**

Neskek  
Domeka. 10:00. Ipintza  
**Bergara-Real Union**  
Infantil mailako mutilak  
Domeka. 11:30. Ipintza

**SASKIBALOIA**
**Bergara-BKL Beasain**

Jubenil mailako neskek  
Zapatua. 11:00. M. Lagundia

**Bergara-Ordizia**

Jubenil mailako mutilak  
Zapatua. 17:30. M. Lagundia

**Bergara-Intxaurrendoa**

Kadete mailako mutilak  
Domeka. 10:30. M. Lagundia.

**PILOTA**

ELGETAKO 4 1/2 TXAPELKETA  
ETB KANTXA SARIA

Kadete maila:

- Biteri-Ruiz de Galarreta
  - Muruamendaraz-Errate
- 23 urte azpitik:
- Iker-Azpiroz
  - Aranburu-Bernal
- Gaur, eguakitzatza 19:30

**BERGARA HIRIA SARIA**

Promesak:

- Etxabe eta Alzola/  
Irazoki eta Tirapu
- Afizionatuak:
- Muruamendaraz eta  
Iñurrategi/  
Beloki eta  
Martinez de Eulate
- Martitzena. 19:30. Pilotalekua

**ESKOLA KIROLA**
**FUTBOLA**

Infantil mailako mutilak:  
**Aranzadi-Almen**  
Zapatua. 09:00. Ipintza

**ANDER MUGURUZA/ BKEko pilotaria**

# "Mikel Goñik ez du parekorik"

**Familia pilotazaletik dator Ander. Zazpi urterekin pilotari eskukadak ematen hasi zen. Duela bi urte Deba Arroko txapelduna izan zen, Redondorekin batera eta duela bi aste Federazioen arteko txapela lortu zuen. Bergara Hiria Saria jokatzen ari da junior mailan Koldo Mendiluze altsasuarrekin eta jadanik lehendabiziko partidua irabazi dute.**

**G.** Zelakoa da aurtengo bikoteren maila?

**E.** Oso maila ona dago. Bikote orekatuak egin dituzten arren, gu baino maila hobea dutela uste dut. Dena dela, lagun bi-

kaina daukat. Mendiluze dagoen atzelaririk onena da.

**G.** Errez irabazi zenieten Amari-ka eta Bengoetxeari?

**E.** Baietz esan daiteke. Atzelariak kale batzuk egin zituen eta horrek asko lagundu zigun.

**G.** Promesetan zeinek irabaziko duela uste duzu?

**E.** Etxabe eta Alzolak.

**G.** Eta afizionatueta?

**E.** Iker Muru eta Iñurrategi.

**G.** Zenbagarren urtez Bergara Hiria jokatzen?

**E.** Aurten lehendabiziko urtea da. Debuta. Puntan dabilen pilotariekin ibiltzea pozgarria da niretzat.

**G.** Zertan moldatzen zara ondoren?


**E.** Airezko pilotetan

**G.** Noren pausoak jarraituko zenuzke?

**E.** Mikel Goñirenak. Pilotari bikaina da. Ondo jokatzen duenean ez dauka kontrakorik.

**G.** Zenbat denbora pasatzen duzu pilotalekuan?

**E.** Orain dezente. Tabernan ari naiz lanean eta gainera, eguaztenetan entrenamenduak izaten ditut.



# Estatuko selekzioen arteko futbito txapelketako sei partidu Bergaran

Galiziako selekzioa da txapelketa irabazteko favorito nagusia

Bergara izango da, Urretxu, Zumarraga, Oñati eta Oiartzunekin batera, estatuko selekzioen arteko txapelketaren topaguneetariko bat. Asteburuan zehar, estatuko 23 selekzioek estatu mailako txapelketa jokatuko dute Euskal Herrian lehendabiziko aldiz. Bergarari dagokionez, Aragoi, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa eta Andaluzia arituko dira. Euskadiko selekzioak, berriz, Oiartzunen jokatuko du.

Bergarak areto futbola-erikiko duen zaletasuna dela eta, txapelketa antolatzen jardun duten Gipuzkoako Federazioko arduradunek Labegaraietako kiroldegia aukeratu dute, lau selekzioen arteko partiduak jokatze-ko. Pedro Rico, Bergarako Lagunak-eko presidentek adierazi digunez, "Bergaran federatutako bi talde dauzkagu eta Labegaraietan jokatzen den txapelketa garrantzitsua da. Bergara txapelketa honetako egoitzen artean aukeratu izateko arrazoi pisutsua iruditzen zait".

Eguakitzean eta zapatuan zehar, sei partidu jokatuko dira senior mailako mutil eta nesketan, eta jubencil mailako mutiletan. Jubencil mailako neskek izan ezik, maila guztiak Bergaran arituko dira. Jubencil mailako neskek, berriz, Urretxu eta Zumarragako kiroldegietan jokatuko dute.

ARETO  
FUTBOLA

**ESTATUKO SELEKZIOEN  
ARTEKO TXAPELKETA 1999**

GIPUZKOA: Apirilak 30 - Maiatzak 2

URRETXU · ZUMARRAGA · BERGARA · OÑATI · OIARTZUN

**CAMPEONATO ESTATAL DE  
SELECCIONES AUTONÓMICAS 1999**

GIPUZKOA: 30 Abril - 2 Mayo

FÚTBOL  
SALA

Txapelketa iragartzen duen kartela.

**laz Galizian jokatu zen txapelketan euskal selekzioen artetik jubencil mailako neskek izan ziren txapela lortu zuten bakarrak**

## FINALAK URRETXUN

Jose Manuel Garcia Gipuzkoako presidentearen hitzetan, "Euskadiko selekzioak Euskal Herrian antolatzeko proposamena egin eta onartu ondoren, Gipuzkoako Federazioari zuzendu dio txapelketa antolatzeko ardura". Herriak aukeratu, jokatze-ko tokiak erabaki, jokalarien ostaturia bilatu eta beste hainbat gauza egin behar izan dutela gaineratu du. Jubencil neskena izan ezik, final guztiak Urretxun jokatuko dira domekan. Ju-

benil nesken txapelduna zapatuan bertan erabakiko da. "Gipuzkoa mailan, Urretxu da areto futbol maila onenatarikoa erakutsi duen herria; horregatik aukeratu dugu. Ni neu ere urretxuarra naitzela esan behar dut".

Joan zen urtean Galizian jokatu zen txapelketa. Euskadiko selekzioen artean, jubencil mailako neskek izan ziren lan onena egin zutenak, Estatuko txapela eskuratu zuten eta. Senior neskek Galiziarren kontra jokatuzten finala baina ez zuten zortetik izan eta mutilei dagokienez, seniorrak eta jubencilak kanporatu egin zituzten. Aurtengo favorito nagusia Galiziako selekzioa da. **B**

## KARTELDEGIA

SENIOR MAILAKO MUTILAK

• **Gaztela Mantxa-Andaluzia**

Eguakitza. 18:00. Labegaraieta

• **Andaluzia-Gaztela Leon**

Zapatua. 12:00. Labegaraieta

SENIOR MAILAKO NESKAK

• Bi partidu Labegaraietan: zapatuan 10:30etan eta 18:00etan (aurretik Oñatin jokatutako partiduko emaitzaren arabera taldeen artean).

JUBENCIL MAILAKO MUTILAK

• **Aragoi-Gaztela Leon**  
Eguakitza. 19:30. Labegaraieta

• Andaluzia, aurreko partiduko irabazlearen kontra, zapatuan 19:30etan Labegaraietan.

## Adinik gabeko Ipintzako futbol txapelketa abian maiatzaren 26rako

Urtero bezala, uda par-tea gerturatzan denean eta Bergarako jaiek lagatako bi-xamona uxatzen hasteko, Ipintzako Futbol txapelketa-ko antolatzaileek deialdia kaleratu dute. BKEk eta Jose Luis Beitiak maiatz eta ekaina bitartean hainbat futbol talde gero eta ezaguna-go den txapelketan aritze-ko aukera zabaldu dute.

Maiatzaren 14rako, tal-deek BKEko bulegoetan izena emanda izan beharko dute. Gutxienez 14 jokalar-i izan beharko dituzte eta gehienez 21. Izena ematera-koan, delegatuaren izena, taldearen kamiseta kolorea, telefonoa eta 14.000 pezeta eman beharko dira.

Antolatzaileek, maiatza-ren 18an egingo den derri-gorrezko bilerara deitzen



lazio finala jokatu zutenak: Bildurbarek (txapeldunak) eta Mongatxurak.

dituzte taldeetako delega-tuak. Txapelketa maiatzaren 26an hasiko da. Gainontze-ko urteetan gertatu den be-zala, talde bakoitzak lau fe-deratu besterik ezingo ditu eduki eta jokatzeko ga-raian hiru baino ezingo dira elkarrekin aritu. Talde ko-puruari dagokionez, Berga-

ra, Antzuola eta Elgetako 20 talde onartuko dira gehie-nez eta liga eran jardungo dute. Neskeei dagokionez, kadete eta senior mailak izango dira eta Soraluzek ere edukiko du jokatzeko aukera. Nesken taldeen bi-lera maiatzaren 17an izango da, 19:30etan.

## Labegaraieta Txirrindulari Sariaren 37. edizioa domekan

**Labegaraietako** jaietan egin ohi denez, Lokatza Txirrindulari El-karteak, Bergarako Uda-la, auzoko jai batzordea eta Gipuzkoako Bide Laguntza Elkartearen la-guntzaz, Labegaraietako txirrindulari saria antola-tu du domekan.

Aurtengoan, arratsal-deko 16:30etan, 63 kilo-metroko ibilbidea egin beharko dute bertaratu-ko diren txirrindulariek. Bergararik irten eta An-tzuola, Oñati eta Osint-xu zeharkatu beharko dituzte, Labegaraietan izango den helmugara heltzeko.

## Ariznoa Euskadiko txapelketan



**Domekan** jokatu zen Gipuzkoako gimnasia txapelketan, Ane Miren Fernandezek 6. postua lortu zuen eta Jaione Igartuak 11.ena, biek jubeni mailan. Ondorioz, Ariznoa 4. izan genuen eta Euskadiko txapelketan egongo dira. Bertan egingo duten lanak, Espainiakoeta-rra joateko balio izango du.

Bestalde, Ipurua A taldean ari den Aintzane Narbaez lehen pos-tuan gelditu zen eta Ipurua B taldean ari den Leire Lasa berriz, bede-ratzigarren. Euskadiko txapelketak asteburuan jokatu dira eta bi topagune izango ditu. Taldeen artekoa Leioan jokatu da igandean. Banakakoa, berriz, zapatuan, Gasteizen. Aintzane Narbaez eta Ane Miren Fernandez dira banakakoa eta taldeen artekoa jokatzeko sail-katu diren bergararrak.

## Preferentea hirugarren mailaren atarian

**Zestoaren** kontrako partidua irabazi ostean, Preferente mailako muti-lek gero eta hurbilago ikusten dute 3. maila.

Asteburuko partidua, hirugarren sailkatua da-goan Trintxerpe talde-ren kontra izango da; irabazi beharreko parti-dua beraz. Liga amaitze-ko falta diren bost jardunaldietatik, Oñatin joka-tu beharreko derbia da zaletu eta jokalariek arreta bereziarekin espe-ro dutena. Lehen itzuli-an Bergarakoek Aloña taldeari 2-1 irabazi zio-ten. Bigarren itzulikoa Bergarako jaietako do-mekan jokatu da txantxiarren zelaian.

## Gorlako auto igoera ekainaren 6an

**Iaz Espainiako txapel-duna** izan bazen ere, aurtengo denboraldian Aitor Zabaletak Euskadiko txapelketa jokatu eta Espainia-kora ez aurkeztea erabaki du. Zabaletak, Telefonica

enpresarekin kontratua itxi du hiru urterako.

Enpresak berak eskatu-ta, Euskadikora besterik ez da aurkeztuko. Hala ere, Aitorrek ez du zeharo bazter-tzen Europa eta Espainiako

txapelketarako igoera batzuetan parte hartzea. Esan bezala, Euskadiko Txapelketaren baitan dagoen Gorlako Igoera, ekainaren 6rako iragarri du Bergara Racing taldeak.

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Elorregi. 943 76 07 47.

Antzuola. 943 76 19 21.

Bidekurutzeta. 943 76 41 08/58 16.

Martoko. 943 76 37 21.

Pisua salgai Zumarragan. 943 76 23 84.

Soraluzen. Berritzua eta amueblatuta. 943 75 23 98.

Bolu. 943 76 24 85.

Etxe berritzua Urteagan, 130 m². 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Pisua salgai Masterrekan. 943 76 47 13.

EROSI

Bergaran etxea erositako nuke. 617 072 595.

ERRENTAN EMATEKO

Apartamentua Zarautzen (abuztuan ez). 943 76 42 05.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

Etxea alokairuan. Deitu 943 76 18 96 telefonoa.

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Artzamendin. 943 76 06 25.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Masterreka. 945 23 48 07.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Kruz Galastegin. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 23 53.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

Ibargarai. 943 76 44 25.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Poligonan. 943 76 32 58.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke. 943 76 08 53.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71/76 37 80 (gauez).

Lokala alokairuan San Pedron. 943 76 10 39.

ERRENTAN HARTZEKO

Nekazal lursaila (2.000 m2) alokairuan hartuko nuke. 943 76 26 79

4. LANA

ESKAINZAK

Erizain titulatuak gaixotzak, edadetuak edo haurrak zainduko lituzke. Deitu 943 76 37 99 telefonora.

Etxeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Astebukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakume batek etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientzidunak denda batean lan egingo luke. 943 76 07 69.

ESKAERAK


Emakume euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 44 54.

Senar-emazte edadetuak zaintzeko pertsona behar da. 629 26 39 45

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINZAK

Ingeles filologian lizen-



Gozogintzan aintzindari.




AGENTEA-DELEGATUA

Iraegi Aseguruak

Ramon Maria Lili 6, beheka 20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxes: 943 76 41 54  
ORDUTEGIA: Astelehenerdik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00  
Larunbatetan: 9.00-13.00



Ileapaindegia  
Estetika  
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

triatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHOko klaseak. 943 76 37 94.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Yamaha 250 cc. motorra, beltza eta kromatua. 943 76 28 92.

Suzuki GSX 750 motorra salgai. Prezio ona. Deitu 610 20 82 78 telefonora.

Citroen BX egoera onean. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI. 6 urte, egoera onean. 608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Aire egokitua. Kilometro gutxirekin. 943 76 23 12.

Honda CR motorra salgai. 250 cc. 9 urte. 943 76 15 34 (Asier).

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Fiat Tipo 1.4 (NA-Z) kotoxea prezio onean. 943 76 51 63 (Nere).

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Aprillia Klimber motorra salgai. 943 76 07 28.

Ford Sierra 2.3 diesela. 617 20 66 29.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Naus 485 karabana, 5 plaza. 943 76 44 07.

GAC motorra (50 cc.). 943 76 49 30 (Igor).

Trialeko Beta 250 cc. motorra salgai. 225.000 pezeta. 943 76 19 88.

Suzuki GSX 750 F motorra prezio onean salgai. 610 20 82 78.

Renault 19 TXE 1.7 kotoxea salgai. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Untxi indiarrek salgai. 943 76 33 12.

Hamsterkume indiarrek salgai. 943 76 43 70.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Opera eta kamara musika CD bildumak salgai. 943 76 58 05 (Juanje).

Trabesiako eskiak salgai. 943 79 06 33.

Altzariak salgai, berriberriak. 619 80 26 06.

Berogailua-akumuladorea salgai. 943 76 44 19.

Errepideko bizikleta (8-12 urtekoentzat). 943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai. 943 76 02 12.

Jaunartzeko bi traje (marineroa eta neskati-larena). 943 76 14 70.

Jaunartzeko trajea salgai. 639 93 68 41.

Bi bizikleta egoera onean salgai. 943 76 13 53.

Kalentadore termo berria. 943 76 30 83 (Juli).

Logela-altzariak. Egoera onean. 943 76 06 78 (21:00etatik aurrera).

Altzari klasikoak salgai. 943 76 17 08.

Kitarra espainola. Berria.

Deitu 943 76 59 94 telefonora (gauetz).

Dina pisu elektronikoa (5 kg.) eta erlojuko beste pisu bat (25 kg.) salgai. 943 76 17 24.

Bigarren eskuko ordenagailuak. 943 76 28 68/12 52 (21:00-22:00).

Sukaldeko Fagor kanpaia berria prezio onean. 943 76 47 82.

**EROSI**

Kitarra elektrikoa eta aplikadorea. 607 95 77 48.


Disko singleak, LPak eta Silvie Vartan, Johnny Halliday, Françoise Hardy eta Luis Marianoren argazkiak azalean dituzten aldizkariak erosten ditut. 943 52 65 77.

**GALDU**

Zapata larrosa bat galdu da Santa Marina inguruan. 943 76 48 27.

Korbatako orratza galdu da Santa Marina inguruan, G.B. inizialekin. 943 76 23 24.

Kartera larrosa galdu dut, objektu pertsonalekin. 943 76 30 32.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**LH II INFORMATIKA  
TEKNIKARIA**  
Gasteiz. 18563/4

**APAREJADOEA/  
APAINZAILERA**  
Bilbo. 18620/4

**HAROTZA**  
Bilbo. 18669/7

**IGELTSEROA**  
Plentzia. 18769/3

**BASIC PROGRAMATZAILERAK, 2**  
Bilbo. 18774/1

**GOI MAILAKO  
INJINERUA**  
Bilbo. 18852/2

**TRAILER GIDARIA**  
Plentzia. 17530/2

**OPTIKARIA**  
Bilbo. 17712/6

**ARKITEKTOA**  
Plentzia. 17890/3

**LH-II MEKANIKA**  
Altsasu. 18199/2

**ESTETIZISTA**  
Goierri. 18212/4

**ELEKTRIKARIA**  
Bilbo. 18215/4

**LAMINATZAILERA**  
Arrankudiaga. 18221/1

**TALADRO LANGILEA**  
Plentzia-Mungia. 18267/3

**DELINEATZAILERAK**  
Durangaldea. 18360/4

**AZAFATAK**  
Bilbo. 18493/1  
**PARKINGERAKO  
KOBRAZAILERAK**  
Deba Behea. 18370/3

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**JOXAN**  
**ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24  
Tf. 943 76 70 29

**Artekale pizzeriak  
AUTODUN  
PERTSONA**  
behar du  
banaketak egiteko

943 76 72 00

**BERGARA**  
**MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak


Urarte 8 BERGARA  
☎ 943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77

**IBARGYREN PENTSYAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



A. Fleming 5  
BERGARA  
Mobilak:  
907 44 50 38  
907 46 57 38

# Argazki zaharren erakusketa arrakastatsua

Herriko tokiei buruzko antzinako argazkien erakusketa 3.000 lagunek ikusi dute

**"Bergara iruditan: azken 40 urteotako aldaketak" izenburupean martxoan Udaletxean antolatu zen erakusketari buruzko datuak helarazi dizkigute Udaleko agiritegikoek.**

Erakusketa martxoaren 5etik apirilaren 21era arte izan zen zabalik eta 3.000 lagunek bisitatu zuten. Egunero, batez beste, 175 lagunek ikusi zuten eta asteburuetan jende gehiago ibili zen: batez beste, 238 lagun zapatu eta domeketan. Horretarako lagatako liburuan, 54 lagunek idatzi zuten euren iritzia.

Argazkien azpian informazio gehiago jartzea eskatu dute gehienek, baina Artxibokoek diotenez, apropos egin zuten horrela, "irudien bitartez lekuak kokatzeko ikusle-

en lana bultzatu nahi genuelako"; gainera, jendearen arteko eztabaidak piztu nahi genituen". Beste batzuek, erakusketako irudiekin liburua eta bideoa argitaratzeko eskatu dute. Baita kopiak eginez edo postalak argitaratuz, argazkiak eskuratzeko bidea egon beharko

litzatekeela. Honen inguruan, artxibokan dauden argazkiak (10.000 inguru) edozeinek kontsultatu eta kopiak eskuratu ditzakeela argitu nahi dute artxibokoek.

Auzoei buruzko argazkirik ez zela agertzen diote beste batzuek. Artxibo-

an ez ei dago, edo oso gutxi daude, Angiozar, Ubera, Osintxu, Elosu, Elorregi, San Juan eta abarretako argazkirik eta erakusketa artxiboko argazkiekin egin zenez, ezin izan zuten auzoetako argazkirik erakutsi.

Bukatzeke, Udal Artxiboko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete erakusketa bisitatu zuten herritar guztiei eta baita euren iritzia, iradokizunak edo kritikak liburuan idatzi zituztenei ere.



JUANITO IDIGORAS. UDAL ARTXIBATEGIAK LAGATA

Santa Marina eta Katabiako Guardia Zibilaren koartela 70ko hamarkadan.

## Bergarako Orkestra sinfonikoa Billabonako Eresargi haur abesbatzarekin

**Bergarako Orkestra** Sinfonikoak Billabonako parrokiaren joko du gaur, eguakitzan, 22:00etan bertako Eresargi haurren abesbatzarekin batera. Billabonako tiplean koro honek diskoa grabatu berri du IZ etxearen eskutik eta diskoaren aurkezpena egingo da gaurko emanaldian. Disko honetan,

Aragüesen "Gabonetako suitea" jasotzen da eta pieza hau Bergarako Orkestrarekin batera grabatu zuten estudioan Eresargikoek.

Gaurko emanaldiaren lehen zatian, orkestrak lau pieza eskainiko ditu, azkena, "Euskal Herria Kantuz", Billabonako abesbatzarekin batera. Bigarren zatian, be-

rriz, diskoan jasotzen diren abestiak kantatuko ditu Eresargik eta, orkestrarekin batera, Aragüesen pieza eskainiko du.

Bestalde, Eresargikoek Pazkuetan, eguakitzean (grebarik ez badago), Udal Pilotalekuan orkestrak eskainiko duen "Titanic" muntaiaren kantatuko dute.



**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



**Matxiategi  
Elektragintza  
C.B.**

**ELEKTRIZITATE  
MATERIALEN  
SALMENTA ETA  
INSTALAKUNTZA**

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

**Garnish**

**Bitxitegia**

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57



Maiatzaren 8an estreinatuko den "Oliver!" musikalerako jo eta ke entsaiatzen ari dira azkenaldian.

## "Oliver!" musikala datorren egunean aurkeztuko da

### Estreinua maiatzaren 8an Mariaren Lagundian

**Bergarako Orfeoia** prestatzen ari den "Oliver!" musikalarari buruzko erreportaia eskainiko dute datorren astean bi telebista katek. ETB eta Tele 5 telebistetakoek "Oliver!" muntaiaren entseietako irudiak grabatuko dituzte aste bukaera honetan eta datorren astean emango dituzte. Orfeoiko ordezkariak adierazi digutenez, Telecincok astelehen eguerdiko albistegian botako du eta ETBk eguazten iluntzeko "Bertatik bertara" saioan.

"Oliver!" musikala bihar zortzi, maiatzaren 8an, estreinatuko da Mariaren Lagundiko aretoan. 18:00etan aurre estreinaldia izango da haurrendako (500 pezeta) eta 22:30etan estreinaldia (2.000 pezeta). Hurrengo egunean, maiatzak 9, beste emanaldi bat izango da, 19:00etan. Maiatzaren 15 eta 16ra-

ko, ostera, beste hiru emanaldi iragarri dira: 15ean, zapatua, 19:00etan eta 22:30etan eta 16an, domeka, 19:00etan. Hauetarako sarrerak ere 2.000 pezetan salduko dira. Sarrerak datorren martitzenean jarriko dira salgai eta zenbatuak izango dira. Mariaren Lagundiko aretoan 500etik gora lagunendako tokia dago.

"Oliver!" ikuskizuna datorren egunean, hilak 6, aurkeztuko dute orfeoikoek prentsaren aurrean. "Oliver! Gazeta"-ren bigarren zenbakia banatuko zaie kazetariari. Ikusleei ere banatuko zaie, sarrerarekin batera, emanaldi egunetan. Orfeoikoak ETBekin harremanetan daude musikala telebistatik bota ahal izateko. Orfeoiak irudi eskubideak lortu ditu, baina, oraindik, Columbiako agintariekin harremanetan dira.

erreseinak



Unai Iturriaga  
**Berandu da gelditzeko**  
Eleberria

Unai Iturriaga ezaguna dugu bertolaria eta Zazpi Eskaleko kide izateagatik. Oraingoan, bere lehen eleberria argitaratu duelako da albiste. "Berandu da gelditzeko" honetan egunerokotasunari buruz ari zaigu egilea, egunerokotasuna batzuetan zelako arriskutsua izan daitekeen kontatzen digu. Nobela Bilbon girotuta dago eta Mikel, Zuria Beltz musika taldeko baxujolea, da protagonista: Ez lanik, ez dirurik, Dionisosen etxean bizi da, honen lepotik.

- Susa. 273 orr. 2.200 PTA



Joseba Tapiak eta  
Koldo Izagirre  
**Apoaren edertasuna**  
Musia eta hitza

Joseba Tapiak eta Koldo Izagirrek iazko urte amaieratik daroate "Apoaren edertasuna" proiektuan murgilduta eta, formato txikiko ikuskizuna izan arren, arrakastatsua gertatu da. Tapiak bakarka egiten duen lehenengo lana da eta, esan bezala, Koldo Izagirre izan du lagun. Diskoan agertzen diren kantuetako letren egilea Izagirre bera da eta baita CDarekin batera banatzen den ipuinarena ere. Zortzi kantu biltzen dira, denak Koldo Izagirreraren sarreratxo eta guzti. Era guztietako doinuak entzun daitezke: fandangoak, arin-arinak, pasodobleak, baladak..., baita Internazionala ere. Itxura zainduaz eta marrakiz jantzia dator CDA.

- Gaztelupeko Hotsak. 2.200 PTA

**GASTON Y DANIELA**

Oihal batek aldatzen du dena

**BERGARA**

Kruz Callastegi 3,

☎ 943 76 07 37

**Jose M. Martín**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotilea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Ausartak, beldurgabeak. 2. Landa eremuko eraikina. Bokala. 3. Asiako estatua. Estu samar, urduri. 4. Pinu-mota. Jasoa. Tona. 5. Kanpo, landa. Garoa, iratzea. Zelai. 6. Harri txintxarra. Musika nota. 7. Bostehun. Jarriak. 8. Beldur. Titanioa. Modu atzizkia. 9. Bokal errepikatua. Miatzearen ondorioa. 10. Usain txarra. Gipuzkoako hiria.

**Goitik behera**

1. Txangoak. 2. Zaudete. Gipuzkeraz, zain. 3. Uso ar. Gu. Nitrogenoa. 4. Kenketaren ikurraren izena. 1998an. Molibdenoa. 5. Ez eme. Komunikabide-mota. 6. Ezagutza emana. 7. Jaurtiketa. Alderantziz, jainko egiptoarra. Alderantziz, iparretarrak. 8. Eroso. Gizon izena. 9. Bokala. Bat. Poztu. 10. Abestiak. Non atzizkia.

**Soluzioa**

10. Kantak. An. 9. A. I. Alaitu. 7. Tro. ar. Kl. 8. Zabal. Iker. Mo. 5. Ar. Iratia. 6. Iragarria. 3. Usar. Geu. N. 4. Ken. laz. 1. Ibilaldia. 2. Zarete. Zai. Goitik behera. 9. Au. Makeda. 10. Kinoa. Irun. 7. D. Ezarriak. 8. Izu. Ti. Kl. 5. Ar. Ira. Lau. 6. Legarra. La. 3. Iren. Arbin. 4. Ler. Igoa. T. 1. Izkaitzak. 2. Baseria. A. Ezker eskuma

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkoroberezibar



**Bergarako kaleetako zein elementutan aurkitu ditzakegu argazkiotako irudiak?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Zubiberri** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Txaro Garcia**rentzat izan da: Txuringo jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Rosariori! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Ibaiondo ibiltokia** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Telefona: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**ZUBI-BERRI**  
  
**JATETXEA**  
 San Anton auzoa  
 Tf. 943 76 30 24



**Oñatiarra jaiotzez, Juan Antonio Unzurrunzaga duela 25 urtetik Bergaran bizi da. Ezkonduta dago eta bi alaba ditu. Oronako mantenimendu teknikaria eta Pol-Pol Argazki Taldeko kidea da; argazki kamararekin ibiltzen da hainbat ekitalditan.**

# J.A. Unzurrunzaga

**Bergararra ala txantxikuarra?**

Txantxikuarra baina Bergaran oso gustora nago.

**Aloña ala Bergara, zein aurretik?**

Aloña Mendi. Ez daukat zalantzarik.

**Etxean erabiltzen duzu igogailua?**

Igotzeko bai.

**Igogailuan, bakarrik ala lagunduta?**

Berdin dit.

**Beste norbaitekin joanez gero, zertaz hitzegiten duzu?**

Eguneroko gauzez; eguraldiaz, lanaz...

**Igogailu berean Naomi Campbellekin joanez gero?**

Urduri jarriko nintzateke eta, beharbada, igogailua geratuko nuke.

**Izan duzu sustorik igogailuak konpontzeko orduan?**

Bai, azken pisu batean igogailuaren goialdean geratu nintzen irten ezinik...

**Igogailua geldituz gero, urduri jarriko zinateke?**

Ez, askotan gertatu izan zait eta.

**Argazkilari ona izateko zer?**

Pazientzia, sentsibilitatea eta zaletasuna.

**Zure lehendabiziko argazki kamara?**

Chocolates Loyolak oparitzen zuen bat.

**Eta orain zein kamara daukazu?**

Nikon F-801 erabiltzen dut, baina beste hiru daukat.

**Diapositibak ala argazkiak?**

Diapositibak.

**Kolorea ala zuri-beltza?**

Azkenaldian zuri-beltzean.

**Bitzta zein koloretakoa ikusten duzu zuk?**

Hori ere zuri-beltzean...

**Paisaiak ala erretratuak?**

Paisaiak nahiago, baina erretratuak hobeto ateratzen zaizkit.

**Argazkiak ateratzeko toki eder bat?**

Urbasa, Pirinioak, Erronkari...

**Nori aterako zenioke erretratuak?**

Pinocheti, kartzelan.

**Gustoko argazkilari bat?**

David Hamilton, Schommer, Cabezudo...

**Oporretara zoazenean eroaten duzu argazki kamara?**

Bai, bi kamara hartuta joaten naiz.

**Oporretarako toki bat?**

Laredora joan gara azken urteotan.

**Beste zaletasunik?**

Bizikletan ibili.

**Zure bertute eta defektu bat?**


Egiazalea naizela eta defektua, gehiegi egiten dudala berba.

**Emakume batengan zertan fijatzen zara lehenbizi?**

Begirakunean.

**35 orduko lan astearen aldekoa?**

Bai, baina baldintzak orain arteko berberak badira. **B**



Irala 3  
Telefona:  
943 76 48 26

**IRRINTZI**  
k a f e t e g i a

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**Ostadar**  
ILEAPAINDEGIA

**Egun bereziatarako aukerarik onena! Solarium eta guzti!**

**Estilistak**  
estentsioak-makilajea  
fantasia koloreak-solariuma-eta abar

**Illeapaindegi mistoa**

Espoloia 4. behea. Beri

**HARTU TXANDA!**

**REMENTERIA**

**Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

**IGARO**

✓ Kosmetika eta oparigaiak  
✓ Eder gela  
✓ Bio Solariuma

Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27



## 1956ko maiatzaren 1a

Bihar, zapatua, maiatzaren 1a, langileen nazioarteko eguna ospatuko da mundu zabalean. Urtero moduan, hainbat ekimen eta manifestazio izango dira han eta hemen sindikatuek deituta. Aste honetako erretratu zaharra orain dela 43 urteko maiatzaren 1ean aterata dago. Garai hartan maiatzaren 1a ez zen jaieguna izaten baina baziren fetxa hori heltzen zen bakoitzean ospatzeko ohitura zeukaten herritarrak ere.

Argazkian agertzen diren lagunak errepublikanoak ei ziren eta langileen eguna behar bezala ospatzea gustoko zuten. Hainbat lagun koadrilatakoak izan arren, egun horretan elkartu eta zelebratuko zuten zelabait maiatzaren

1a. Argazkian, Espoioian ikus ditzakezue, bertako banku batean jarrita. Ziurrenik elkarrekin bazkalduko zuten 1956ko egun hartan. Eskumaldean jarrita agertzen den Victoriano Telleriarte La voz de Guipuzcoako berriemailea izan zen Errepublika garaian. Hara hor zeintzuk diren argazkikoak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Luis Perez, Julian Zumelaga, Evaristo Albeniz eta Jose Mari Garicano.

**Jarrita:** Vicente Ena, Ignacio Muruamendi-raz, Ramon Arruabarrena eta Victoriano Telleriarte.

*Argazkia: Pakita Ilarduia.*

ileapaindegia  
eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

# EZ DAGO KONPARAZIORIK




  
**OMU**  
KERAMIKAK



Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka 6 • Tf./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE  
eta AURKI ERAKUSKETA ZABALIK: Ignacio Zuloaga 4 • Tf. 943 79 07 20 • ARRASATE

**ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK**



**Zuretzat,  
bidalketa sistema  
fidagarri bat edukitzea  
ez da aukerarik garrantzitsuena.**

## Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT  
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,  
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ  
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN  
MERKATURATZEA NAHI DUZU.  
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK  
BETE BEHAR DITUZU,  
ALDI BEREAN HAUEK ERE  
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.  
BIDALKETA,  
ZEURE NAHIAREN ARABERA  
EGITEA ESKATZEN DUZU,  
BESTERIK EZ.  
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI  
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,  
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK  
GARAIZ BETE DITZAZUN.  
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEAK  
ATEZ ATE BANATZEN,  
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA  
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,  
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



**GUIPUZCOANA**

*Paketeen Garraio eta Banaketa*



*Beti garaiz.*